

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua
Ikasturtea: 2019-2020

HEZKIDETZA GORPUTZ HEZKUNTZAN

EGILEA: Egaña Pagoaga, Alaitz
ZUZENDARIA: Fernandez Lasa, Uxue

2020ko ekaineko deialdia

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	3
2. TESTUINGURUA.....	4
2.1. KONTZEPTUALIZAZIOA. ZER DA HEZKIDETZA.....	4
2.2. HEZKIDETZAREN GARAPENA HISTORIAN ZEHAR.....	4
2.3. HEZKIDETZA GORPUTZ HEZKUNTZAN. GAUR EGUNGO ERREALITATEA.....	7
2.4. HEZKIDETZA SUSTATZEKO PRAKTIKA ONAK.....	12
2.5. MARKO TEORIKOA: TEORIA FEMINISTAK.....	15
3. LANAREN HELBURUA.....	15
4. METODOLOGIA.....	16
4.1. SARRERA/DISEINUA.....	16
4.2. PARTE HARTZAILEAK.....	16
4.3. DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK.....	17
4.4. DATUEN ANALISIA.....	19
5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	21
5.1. HEZKIDETZAREN PREMIA.....	21
5.2. SAIOEN ANTOLAKETA.....	23
5.3. IRAKASLEGOAREN KOMUNIKATZEKO ERA.....	34
6. ONDORIOAK.....	36
7. APLIKAZIO PRAKTIKOAK.....	39
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	40
9. ERANSKINAK.....	42
9.1. BAIMEN INFORMATUA.....	42
9.2. BEHAKETA PARTE HARTZAILEA/LANDA PRAKTIKAK.....	44
9.3. IRAKASLEEI EGINIKO ELKARRIZKETAK.....	52
9.4. GORPUTZ HEZKUNTZAKO SAIO HEZKIDETZAILEAK.....	66

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun gorputz hezkuntzan hezkidetzak duen beharra ikusirik, errealitatearen hausnarketa eginez hezkidetzak bertan dituen oztopo eta premiez jabetzea eta hezkuntzan hezkidetzak sustatzeko ildoak aztertuz, ondoren proposamen bat garatzea da lan honen helburua. Izan ere, gaur egungo errealitatean hezkidetzak duen premia izugarria da, eta are gehiago gorputz hezkuntzako irakasgaietan, izenak berak adierazten duen moduan, gorputzarekin jarduten den irakasgaia baita, eta gaur egun oraindik ere gorputzari loturiko estereotipo asko daude, norbanakoari ez diotenak aske jarduten uzten, sexuen arteko bereizketa nabarmena eginez, banaketa horretan emakumezkoak gutxietsiz (Vazquez, 1996; Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Horrenbestez, garrantzitsua iruditu zitzaidan gabezi horiekin amaitzeko bidean nire alea jartzea, gaur egungo errealitatea ikertu eta etorkizunera begira baliagarriak eta hezkidetzailleak diren argibideak plazaratzea, edonork emakumezkoenganako gutxiespenarekin amaitzeko eta guztion askatasuna bermatzeko bidean aurrera egiteko baliabideak izan ditzan.

Horretarako, metodologia kualitatiboaren bidez gorputz hezkuntzako saioak behatu eta ikertu zein saio horietako irakasleei elkarrizketak egin zitzaizkien, eta beraz, testuinguru errealean kokatu da ikerlan hau. Hala, hezkidetzaren beharrak identifikatu eta horiek ulertuta errealitatearen transformazio bat egiteko argibideak izateko beharrezko edukiak landu ziren.

Lan hau ondorengo ataletan banatu da: lehenik, testuingurua, hezkidetzaren garrantziaren justifikazioa, hezkidetzak heziketa fisikoan izan duen bilakaera, gaur egungo egoera eta garapenean baliagarriak diren praktika onak banelbildu dituen. Ondoren, metodologia, lana nola garatu den eta lanean zein urrats jarraitu diren adierazi dena. Jarraian, emaitzak, gaur egungo heziketa fisikoan hezkidetzak duen errealitatea ikertzeko behaketa parte hartzailetik eta irakasleei eginiko elkarrizketatik bilduriko informaziotik ateratarako emaitzak adierazi direna, oztopo horiez jabetuta etorkizunera begira hezkidetzaren bidean baliagarriak izan daitezkeen proposamenarekin batera. Azkenik, emaitza horietatik ateratako ondorioztatzea, baliagarria izan daitekeen aplikazio praktiko edo proposamen bat luzatzearekin batera.

2. TESTUINGURUA

2.1. KONTZEPTUALIZAZIOA. ZER DA HEZKIDETZA

Hezkidetza, heziketan ematen den interbentziorako metodo bat da, sexu ezberdinen arteko parekidetasunean oinarritzen dena eta sexu ezberdinen arteko diskriminazioa ukatzen duena (Garcia et al., 2017). Hala, hezkidetzaren bitartez heztea, norbanako guztiak aukera berdinetan heztea da, sexuarengatik ezberdinak izan gabe, pertsonak bere osotasunean onartuz eta estereotipoek sorturiko hierarkizaziorik eta aurreiritzirik gabe (Garcia et al., 2017). Hori posible izan dadin, garrantzitsua da aldaketa legislatibo, irakaslegoaren edo edozein norbanakoren jarrerazkoak ematea, hausnarketan oinarritutako jokabideak sustatuz, izan ere, irakaskuntza arloan bermaturiko arauak hezkidetzailleak badira, prozesuak hezkidetzaren bidea har dezake (Garcia et al., 2017). Horrenbestez, ezinbestekoa da errealitatearen parte diren arazoez ohartu eta norbanako bakoitzak horren aurkako eta aldaketarako eragile papera hartzea, hezkidetza, aldaketa kultural batean oinarritzen baita (Garcia et al., 2017; Subirats, 2010).

Eredu hezkidetzaille bat sustatu nahi bada, ezinbestekoa da aurrera eramango diren praktikek eta curriculumek emakumezkoen aurkako praktikak diskriminatzea, izan ere, oraindik ere futboleko aritzea sokasaltoan aritzea baino gehiago balioesten da (Garcia et al., 2017). Beraz, tradizionalki femeninoak izan diren praktikek berriz hartu beharko lukete balioa, mutil eta nesken arteko jarrera kritikoa sustatuz (Garcia et al., 2017).

Desoreka horri aurre egiteko plan baten beharra ikusirik, plan bat atera zuen EAEko Hezkuntza Sailak 2019-2023 urteetarako (Hezkuntza Saila, 2019). Plan horren helburua euskal hezkuntza sistemari, HH, LH eta DBHko etapetan hezkidetzaren bidean urratsak emateko aukera eskaintzea da, berdintasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko urratsen kontzeptu-gakoak aurkituz (Hezkuntza Saila, 2019). Beraz, Eusko Jaurlaritzak aurkitutako behar horiek, hezkidetza lantzeko beharra agerikoa dela justifikatzen dute.

2.2. HEZKIDETZAREN GARAPENA HISTORIAN ZEHAR

XX. mendetik gaur egun arte, hiru ildo hezkidetzaille gailendu dira gehienbat: eskola berezia, diferentziak desberdintasuna osatzen duena, eskola mistoa, berdintasunak ezberdintasuna baliogabetzen duena eta eskola hezkidetzaillea, ezberdintasunetik parekidetasuna sustatzen dena (Garcia et al., 2017).

2.2.1. BEREIZKETA EREDUA

Eskola bereizia, hots, segregatua, diktadura frankista osoan, heziketa fisiko maskulinoa Frente de Juventudesez eta heziketa fisiko femeninoa Sección Femeninaz antolatzen zuten garaian eman zen, eta bertan, neska eta mutilak heziketa eredu, curriculum, pedagogia eta irakasle ezberdinekin jarduten zuten (García et al., 2017).

Horrez gain, soilik emakumezkoak atxikitzen zitzaizkien hauskortasuna zalantzan jartzen ez zen kasuetan burutu zezaketen mutil eta neskek jardura fisiko berbera, mutilei ez baizitzaizkien jardura artistiko eta adierazkorrak atxikitzen curriculumean, feminizazioaren beldur baitziren horien sortzaileak (García et al., 2017). Beraz, eredu horretan bi eratan ematen zen sexismoa: talde sexual bakoitzari bizitzako hainbat ezagutza eskuratzeko gaitasuna mugatuz eta maskulino eta femeninoaren arteko hierarkizazioaren bidez (García et al., 2017).

Bi sexuarentzako hezkuntza, eredu eskusibo bakarra zen, eta ezaugarri maskulino zein femeninoen bereizketa ezberdintasun biologikoengatik etorria izanik maskulinitate eta feminitatearen arteko bereizketa egitea ezinbestekoa zela adierazten zen, maskulinitatearen lanketa gizonekin eta feminitatearen lanketa emakumezkoekin (Vázquez, 1996).

Bi kasu horietan, gizarteak eskaintzen zien rola betetzera bideratutako trebetasunak eskuratzeko zituzten: nesken lanketa artisau zein etxeko lanak egitean oinarritzen zen, batik bat erreprodukzioan, eta mutilena etorkizunean lana egiteko bideratua zegoen, orokorrean, jardura publiko-sozialak egitera (Vázquez, 1996). Beraz, heziketa mota horretan norbanako bakoitzak, bere gorputzari zegokionez, “emakume” edo “gizon” izaten ikasten zuen (Vázquez, 1996).

2.2.2. EREDU MISTOA

1970. urtean Hezkuntzako Lege Orokorra onartu zenean ezarri zen, eta bertan, mutil zein neskek curriculum bera izanez hezten baziren ere, mutilen balore eta egiteko era gailentzen zen, emakumezko eta gizonezkoen arteko hierarkizazioa iraunaraziz (García et al., 2017). Momentu hartara arte maskulinoa zen heziketa fisikoko eredu unibertsal eta guztientzat baliagarria bihurtu zen, eta bertan, eredu femeninoa alboratu zenez, emakumezkoak jardura fisikoarekiko interesa galtzen hasi ziren, maskulinitate hegemonikoa jarraitzen ez zuten mutilen antzera (García et al., 2017). Beraz, formazio integralean huts handia nabaritzen hasi ziren, diskriminazio eta ezberdintasun izugarria baitzegoen (García et al., 2017).

Dena den, ezaugarri fisikoen aldea sexu berdineko kideen artean bi sexuak nahasturik baino handiagoa zela, eta beraz, taldeen osaketa gaitasun fisikoen arabera egin behar zela adierazten zen (Vazquez, 1996). Gainera, heziketa fisikoan sexuaren araberako banaketak estereotipo sexistak indartzen zituela adierazi zen, eta horrenbestez, pentsatzeko eran aldaketa bat emateko ezinbestekoa zela heziketa fisikoko saioetan eredu mistoa bermatzea, ezberdintasunean eraturako harremanak aldatzeko eta erlazio parekideak osatzeko (Vazquez, 1996).

Ildo horretan, gizonezkoek hartzen zuten lidergotzari esker, eskola mistoan emakumezkoen parte hartzea txikiagoa zen, eta irakasleek sexuan oinarritutako hautemateak egiten jarraitzen zuten, gizonezkoen elkarrekintza handiagoa eskainiz (Vazquez, 1996).

2.2.3. EREDU HEZKIDETZAILEA

Eredu mistoak ez zuen parekidetasuna bermatu, eta beraz, aldaketa beharrezkotzat joz, hezkidetzaren beharra ikusi zen, neska eta mutilen banaketarik gabeko hezkuntza bermatzen zuena, benetako parekidetasunean eta errespetuan oinarritua (Vazquez, 1996). Hezkidetzak bermatzearekin batera, genero rolen hierarkiarekin hautsi nahi izan zen, eta horretarako, curriculum maskulino unibertsala eta irakasleen eta ikasleen jarrera sexistarik gabeko eredu berria ezarri zen (Vazquez, 1996).

Hezkidetzak hitzarekin aukeren eta ereduaren berdintasuna ulertu izan da, eta hezkidetzak, parekidetasunaren bidez, pertsona ororen eskubidea adierazi nahi du, norbanakoen sexua kontuan hartu gabe, bere potentzial maximoa garatzeko (Vazquez, 1996). Halaber, ezberdintasunak ezabatzen dituen pedagogia orok norbanako bakoitzari bere beharrak asetu behar dizkio (Vazquez, 1996).

Eredu hori, orain arte indarturiko hainbat baieztapeni kontrajartzen zaio: gizonezkoek kirol eta talde jolasetan duten parte hartze handiagorekin, emakumezkoen zein gizonezkoen elkarrekintzak eredu tradizional estereotipatuan oinarritu behar diren, irakasleek gizonezkoen garrantzi handiagoa eskaini behar dieten eta heziketa fisikoa izaera maskulinoak menperatzen duen usteari (Vazquez, 1996).

Hori gutxi balitz, gaur egun, profesional askok hezkidetzak arbuiatzen dute, eta horrenbestez, oraindik ere, hezkidetzari buruzko eztabaidak badu zeresana, ondorio batera iristeko bide luzea izanik, eta horrek, heziketa fisikoan eragin handiagoa du beste irakaskuntza esparruetan baino, gorputzari loturiko estereotipoak aldatzea oso zaila baita (Vazquez, 1996).

2.3. HEZKIDETZA GORPUTZ HEZKUNTZAN. GAUR EGUNGO ERREALITATEA

Gaur egungo errealitateari so egiten badiogu, oraindik ere, emakumezkoen parte hartze zein onarpenean hainbat oztopo daude, eta horiek antzematea geroz eta zailagoa da, jada deuseztatu direla pentsatzera arte (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Gainera, oztopoen hautemate eta errealitatearen analisisa egiteko ezintasuna nabaria da, eta beraz, horren eraldaketa bat emateko ezinbestekoa da desberdintasunak antzemateko bitarteko eta gaitasunak garatzea, hau da, pedagogia sozio-kritikoa bermatzea, heziketa fisikoa gogoetarako eremu eta agente transformatzaile bihurtuz (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Gaur egungo menderatze maskulinoak bermatzen duen sisteman, bizitza sozialeko arlo guztietan banaketa egiten da, gizonezko eta emakumezkoen kategoriak banatuz eta hierarkiaren gailurrean gizonezkoak ezarriz, eta beraz, maskulinitate hegemoniko horren baitan egiten da heziketa fisikoa, horren adierazgarri gaitasun motorra izanik (Devis eta al., 2005; Vidiella et al., 2010).

Beraz, ahaztu ezin daitekeen faktorea da gaitasun motorrarena, eta horren ezaugarri nagusia generoa da, norbanako bat heziketa fisikoan trebea bere ezaugarriak kirol alorrean zilegi badira kontsideratzen baita, hau da, sinbolikoki maskulinoak diren ezaugarriak barnebiltzen baditu, eta beraz, kulturalki maskulinoak kontsideratzen diren gaitasun motorrek goi posizioa hartzen dute (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Beraz, ezinbestekoa da gaitasun motorra kontzeptu neutroa ez dela ohartzea, gaitasun motorraren esanahia, erabilera eta zeini mesede egiten dion zalantzan jartzea eta lehiaketaz haratago heziketa fisikoa egiteko alternatibak bilatzea (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Bestalde, gaur egungo heziketa fisikoan ematen diren genero erlazioak oso aldakor eta elkarren mendekoak izan daitezke, eta bereziki pisu kulturak handia dutenetan, jarrera estereotipatuak azaleratzen dira (Soler, 2009). Gehienetan, mutilek parte hartze handiagoa izaten dute, eta horren trebeak ez diren neskek gutxiesten dituzte, etika alde batera uzten baita maiz, norbanakoen gaitasunak indartu eta jarduera fisiko inklusibo bat egin beharrean, sustatzen den asmo bakarra irabaztearena izanik (Soler, 2009).

2.3.1. ESTEREOTIPOAK GORPUTZ HEZKUNTZAN

Kirolak, maskulinizazio prozesu bat irudikatzen du, gaitasun motor batzuk garatzea horren parte izanik, eta maskulinitate hegemonikoko estereotipoak jarraitzen ez dituzten portaerak zigortuz (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Monoglosia hori hausten duten emakumeek erresistentzia sortzen dute, eta gutxietsita daude, emakume kirolari gehienak

lesbianak direla edota emakumezkoak fin eta delikatuuegiak direla adierazten duten estereotipoak baitaude (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Jarraian, gaur egungo errealitateko estereotipoetan oinarritzen diren eta askotan gertatzen diren hiru egoera agertuko dira.

2.3.1.1. NESKEI HEZIKETA FISIKOA EZ ZAIE INTERESATZEN

Idea hori oso zabaldua dago, gehienbat irakasleengan, nesken gustua eta horien erabakia dela eta horren aurka ezer egin behar ez dela adierazten baitute askok (Vilanova eta Soler, 2012). Beraz, neska askoren jarrera pasiboa gorputz hezkuntzako ereduarekiko erresistentziatzat har daiteke, neska askok heziketa fisikoko saioetan interesik ez jartzeak ez baitu esan nahi ez dutenik bizitza aktibo bat edota jarduera fisikoarekiko interesik, baizik eta heziketa fisikoko saioetan ez direla guztiz eroso sentitzen, eta beraz, gustura ez dauden eremuak alboratzen dituztela (Soler, 2009).

Gainera, sarritan ez da kontuan hartzen mezu inkontzienteek eragina dutela neska eta mutilek erabakiak hartzerako orduan, eta beraz, heziketa fisikoko saioetan interes gutxi izatearen errua neskei egozten zaie, hori egiteko modua nolakoa den kontuan hartu gabe (Vilanova eta Soler, 2012). Gainera, neskek, askotan, errua beraiena dela uste dute, eta frustraziora iristen dira, gizartean onartuak ez direla sentitzen baitute (Vilanova eta Soler, 2012).

2.3.1.2. “NAHI BADUZU EGIN DEZAKEZU”

Irakasle askoren kasua da honako hau, heziketa fisikoan emakumezkoak diren eta eredu tradizionala “gainditu” duten irakasle askok “nahi baduzu egin dezakezu” esaldiarekin ikasle neska guztiek egin dezaketela adierazten baitute (Vilanova eta Soler, 2012). Beraz, gaur gaurkoz, ez da eredu tradizionala gainditu, neska askori proposatzen zaiena ez dutenean lortzen frustraziora heltzen baitira (Vilanova eta Soler, 2012). Alabaina, emakumezko askok gizona mailara heltzea lortu dute, eta hori lorpen eta arrakastatzat hartu da, benetan arazoaren erroa non dagoen aurkitu gabe (Vilanova eta Soler, 2012).

Gainera, neskei beraien kabuz eta laguntzarik gabe egin behar dutela leporatzen zaie, heziketa fisikoan emakumezkoen jarreran aldaketa beharrezkotzat jotzen baita, gorputz hezkuntza bera aldatu beharrean (Vilanova eta Soler, 2012). Hori horrela, neska askok ez dute ezartzen zaien bidea lortzen eta horrenbestez, gizartetik at sentitzen dira (Vilanova eta Soler, 2012).

Irakasle askok motibaziorako estrategia ugari erabiltzen badituzte ere, ez dira nahiko lirateken emaitzak lortzen, eta aldaketarik ez dagoenez, ezinezkotzat hartzen da neskei jarduera fisikoa gustatzea, askotan, “normaltzat” edota “naturalizat” hartzen baita heziketa fisikoan neskek deseroso egotea (Vilanova eta Soler, 2012).

Azken finean, nesken nahiak zeintzuk izan behar diren eta egin behar dutena adierazten zaienean zein hori lortu ezean, euren porrota dela ondorioztatzen dute, eta berriz saiatzeko gogorik gabe itzultzen dira, saioak gorrotatzera helduz (Vilanova eta Soler, 2012).

2.3.1.3. “NATURALA DA” “NORMALA DA”

Idea horrek ez du ahalbidetzen aldaketa eman daitekeenik, neska asko heziketa fisikoan gustura ez aritzea normaltzat hartzen baita, hautu naturalizat. Baina, naturala al da emakumeek jarduera fisikoa egitea gorrotatzea? (Vilanova eta Soler, 2012).

Bestalde, errekreoan neskek euren jarduerak izkina batean egin nahi dituztela eta mutilek euren ekintzetan jarduteko espazio handiagoa behar dutela naturalizat jotzen da, eta ez da kontuan hartzen eremu edota ekintza horietan ematen den mutilen nagusitasuna (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, gorputz hezkuntzako saioetan ere kantxako eremurik handiena mutilek hartzen dute, izkinak neskei utziz, eta gertaera horiek jokoaren barneko erlazioengatik ematen dira, erlazio horiek estereotipoen baitan sortuz (Soler, 2009).

Maskulinitate hegemonikoaren adibide garbia da futbolarena, horrek, norbanakoa erabakitzailea, lehiakorra, oldarkorra eta latza izatea goraipatzen du, eta beraz, gizonezkoen kiroltzat hartu izan da betidanik, adjektibo horiek gizonezkoei atxikitzen baitzaizkie, askotan emakumezkoak ausartak izatea bitxi irudikatuz (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Beraz, askotan, jarduera bakoitza kategoria edota sail baten sartzeko joera dago, “gizonezkoentzako” eta “emakumezkoentzako” kategoriak banatuz, eta neskek baztertuak diren aldetik, harrigarriagoa da neska bat mutil bat baino hobea izatea futbolean (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019; Soler, 2009).

Estereotipoen gaia zabala da, eta errotik hausnartu eta aztertu behar da, estereotipoak ez baitaude soilik heziketa fisikoan, gaur egungo gizartean presente baitaude (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Horietan, neskek eta mutilek rol ezberdinak jorratzen dituzte, betetzen dituzten funtzioak ezberdinak baitira, izan ere, kategoria sexual bakoitzari ezaugarri ezberdinak erantsi zaizkio betidanik, elkar baztertzaileak direnak (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Bestalde, sozialki egokia eta desegokia dena bermatu izan da betidanik, eta kirol praktikan gizonezkoei emakumezkoei baino gehiago ahalbidetu izan zaie (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Gainera, genero estereotipoek ez dute soilik errealitatea deskribatzen, hori indartzen dute, eta generoen arteko ezberdintasunak gizarteak eta bertako biztanleek mantentzen dituztelako jarraitzen dute bizirik (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Bestetik, genero estereotipoen bidezko eragin soziala ikaragarria da, eta horren bidez ematen dira gizonezkoak gailentzen diren hierarkizazioan hainbat erlazio dominante, beraz, tratatu zuzen eta bidezko bat lortu behar da, genero estereotipoen suntsipen eta desagertzea ahalbidetzen duena, eredu unibertsal androzentrikoarekin batera, norbanako bakoitzaren kualitateak garatuz (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018). Agente sozializatzaile nagusienek (familia, eskola, etab.), ideia estereotipatuak zabaltzen dituzte, eta eskolak heziketa fisikoan ematen diren genero rolen arteko ezberdintasunak bermatzen ditu, neskek curriculum maskulinoa jarraitu behar baitute, mutilek horien beharrak asetzen dituzten bitartean (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018).

Gaur egun, ustez norbanako bakoitzarentzat egokiak ez diren jarduerak egiterakoan, etiketatu eta epaituak izateko arriskua dago, eta beraz, ez gara libre nahi duguna nahi dugun moduan egiteko (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018). Esaterako, mutil askok beldurra izaten dute dantzako mugimendu batzuk egiterako orduan horien maskulinitatea galtzeko, izan ere, estereotipoen sinesmenen presentziak antsietatea sortzen du (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018).

Horrenbestez, ikaslearen generoak garrantzi handia du, bi sexuetan antsietatea, lotsa, beldurra edota jarduera bat egiteko ezintasuna sentiarazteraino, gutako bakoitzaren arteko ezberdintasunak ikasteko eta elkar-bizitzeko baliabide izan beharrean (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018).

2.3.2. IRAKASLEGOAREN PAPEREA

Irakasle askok garrantzitsuena gaitasun motorrak eskuratzea dela adierazten dute, eta hori lortzeko mutilek neskei jokatzen utzi eta neskek ahalegina egin behar dutela (Soler, 2009). Gainera, neskek jokoan integratu ahal izateko jokoaren kanpoko itxura soilik aldatzen da, eta horrenbestez, neskenganako arrenkura handitzen da, horienganako presioa handituz eta konfiantza txikituz (Soler, 2009).

Askotan, ikasle askok ez dituzte euren kideek besteko gaitasunak eskuratzen, eta trebeak diren kideek menperatzen dituzten jardueretan akatsak egitea egozten zaie, zenbaitetan alde batera utziz eta mespretxatuz (Soler, 2009). Hori horrela, askotan, jarduerak lehiakorrek direnean, neska askok taldearentzat zein jokoaren dinamikarentzat onena beraien burua jokotik at uztea dela adierazten dute, eta ertz batean kokatzen dira, jokoa behatuz

(Soler, 2009). Horren bidez, eremu edota testuinguru deseroso bat sortzen da heziketa fisikoko saioetan, eta ezinezkoa bihurtzen da irakaskuntzarako aproposa den eremu bat eratzea (Soler, 2009).

Beraz, heziketa fisikoan irakasleak hezkidetzak nola sustatu jakin behar du, planteamendu hezkidetzakileak sustatzeko baliabideak argi izanez, izaera hezkidetzakile eta feminista izanez eta aniztasunaren aldeko ideiak bultzatuz, beraiek izango baitira ikasleen agente sozializatzaile garrantzitsuenetarikoak (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018).

2.3.3. EREDU TRADIZIONALARI ERRESISTENTZIA EDO ALDAKETA

Kanpotik begiratuta, irakasle askok haur bakoitzak nahi duena egiten duela uste du, eta uste horiek hainbat alderditan hartzen dute parte aldaketarako erresistentzia moduan: mutilen erabakiak goraiapatzean, saioak dinamizatzerako orduan erabakiak hartzean, erabiltzen den hizkeran eta eduki garrantzitsuenak erabakitzean (Soler, 2009).

Beraz, oso garrantzitsua da neskek heziketa fisikoan hartzen duten papera edota protagonismoa behatu eta analizatzea (Soler, 2009). Kanon tradizionalen haustura ematea errazagoa da nesken kasuan, horiek baitira baztertuak eta beraz, gehiago baloratzen da neska bat futbolean ona izatea mutil bat baino (Soler, 2009).

2.3.3.1. EZKUTUKO CURRICULUMA

Heziketa fisikoko curriculum ezkutuaren existentziaz ohartzea oso garrantzitsua da, hori transmititzen dutenak curriculum horren benetako egin-nahiaz eta intentzioez ohartzen ez direlako egiten baitute, eta horregatik da horren zaila curriculum mota hori antzematea (Vilanova eta Soler, 2012). Gainera, nahiz eta gaur egun milaka jarrera ez diren onargarriak, zailagoa egiten da jarrera horiek hautematea eta horien aurka egitea, curriculum ezkutuaren bidez ez baitira egora horiek garbi plazaratzen (Vilanova eta Soler, 2012).

Curriculum ezkutuan, gizarteak sortu eta mantendutako estereotipo eta aurreiritziak agertzen dira, eta guk, gizarteko partaide izanik, horiek barneratu eta asimilatzen ditugu, normalizat hartuz (Vilanova eta Soler, 2012). Berdina gertatzen da heziketa fisikoko saioetan, inkontzienteki eta era sotil batean, sinesmen horiek plazaratzen ditugu, mutil eta neskek era ezberdin batean hezi eta tratatuz (Vilanova eta Soler, 2012).

Gainera, planteamendu hezkidetzakileak mesfidantzaz eta ez premiazkoz hartzen dira askotan, hezkidetzaren alde jokatzeko zerbaiten edota norbaiten aurka egitea esan nahiko balu moduan (Soler, 2009). Baina hezkidetzak ez du inorren aurka egiten,

askatasunaren alde soilik, eta beraz, eskolak garrantzi handia du bere garapenean, hartu dezakeen papera bi modutakoa izan daitekeelako: eredu tradizionaletan erreprodukzioa edota heziketa fisiko integralaren sustaketa (Soler, 2009). Hala ere, heziketa fisikoko genero bidezko erlazioak ulertzeko, lehenik, kirol sistema ulertu behar da eta horrekin batera, hezkuntza sistema (Soler, 2009).

2.4. HEZKIDETZA SUSTATZEKO PRAKTIKA ONAK

Gaur gaurkoz, gorputz hezkuntzako irakasleek ezinbesteko rola jorratzen dute ikasleen heziketan, horiek erabakitzen baitute desberdintasunari balioa eman edo aldaketa bultzatu (Vilanova eta Soler, 2012). Haatik, irakasleek garatu behar dituzten estrategiek hainbat alderdi barnebildu behar dituzte: eskola osoaren eta ingurunearen diziplinarteko lana, ikasleen sinesmenen gaineko jarduerak, hizkuntza eta jokatzeko moduak, saioak antolatze modua eta jardueren diseinu zein ebaluazioa (Vilanova eta Soler, 2012). Hala ere, lehenengo urratsa norbanako bakoitza egoeraren jabe izatea da, errealitateaz jabetzea hain zuzen, ondoren ekintzara pasatu ahal izateko (Vilanova eta Soler, 2012).

Eskolan lanean diharduten pertsona ororen lankidetzaren bidez hezkidetzailleak izango diren praktika onak garatzeko hainbat alderdi hartu behar dira kontuan (Vilanova eta Soler, 2012). Erronka horretan hezkuntza- eta kirol-politikaz arduratzen diren erakundeetatik hasita, ikastetxeetako langile eta arduradun, irakasle, familia eta ikasleetaraino hartu beharko lukete parte, hezkidetzako edozein planteamenduk arrakasta handiagoa izango baitu lanean ari den hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa lortzen bada (Vilanova eta Soler, 2012).

Ikastetxeek hainbat neurri har ditzakete hezkidetzaren sustatzeko: bertako kirol instalazioak birdiseinatu, jarduera alternatiboak egiteko gune zentralak sortu (espazio zentrala futboleko jarduteko soilik izan ez dadin), aisialdian kirola egiteko gimnasioa erabiltzen utzi, jolas-denboran kirol praktikak dibertsifikatzeko jarraibideak ezarri, emakumeen kirol-kulturaren berezko erakustaldi eta txapelketak antolatu eta emakumeei garrantzia eta indarra eman (Vilanova eta Soler, 2012).

Bestetik, gorputz-hezkuntzan, gorputzarekin eta jarduera fisikoarekin lotuta komunikabideetan agertzen diren genero-eredu eta harreman tradizionalen aurrean duten gaitasun kritikoa sustatzea eta horri buruz hausnartzeko espazio eta denbora hartzea aurrerapauso handia da, ikasleek beren burua eredu tradizional hegemoniko horietan identifikatzeko arrisku handia baitago (Vilanova eta Soler, 2012).

Ilido horretan, hezkuntza komunitatean sexu jazarpenaren auzia jorratzea garrantzitsua da, adin bereko, adin txikiko edota helduen artean gerta daitezkeen jazarpen

moduetan sentsibilizatu eta prestatuz, jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan, zein gainerako testuinguruetan (Vilanova eta Soler, 2012). Bertan, irakasleek esku hartu eta babesa helaraziz garrantzi handia hartzen dute (Vilanova eta Soler, 2012).

Bestalde, familiek ere garrantzi handia hartzen dute, eta beraz, familiak sentsibilizatzea eta ohiko ereduaren gainera ikasleek kirola edota jarduera fisikoa egin dezaten laguntzea ezinbestekoa da, kirol ohiturak sustatzeko lehen mailako sozializatzaile funtsezkoak baitira, eta agente sozializatzaile primario horiek aurka egiten badute, haurrentzat zailagoa da egin nahi duten kirola askatasunez aukeratzea (Vilanova eta Soler, 2012).

Ikastetxeen planteamenduetarekin batera, ikasleen jarrerari, sinesmenei eta harremanei buruzko joera eta portaerak analizatzea eta hausnartzea ere garrantzitsua da, eta horretarako lehenengo pausua ezkutuko curriculumaren inguruan hausnartzea da, horrek dakartzan oztopo eta diskriminazioak azaleratuz (Vilanova eta Soler, 2012). Bestalde, errotik moztu behar dira ikaskideen arteko bereizketa eta presioak, “neskek ez dute egin nahi”, “mutilak oldarkorak dira” moduko esaldi estereotipatuak ekiditeko arauak ezarriz (Vilanova eta Soler, 2012).

Ilido berean, hurrekin komunikatzeko hizkuntza eta moduak garrantzi handia hartzen du: mutil zein neskek modu berean izendatzea, galderak egiterako orduan, feedbackak ematerakoan eta zuzenketak egiterakoan hitza neskei zein mutili zuzentzea, etab. gomendatzen da (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, aproposa da neska zein mutili esku hartzeko aginduak ematea, etenaldiak saihestuz denek lekua eta denbora eskaintzea, ikasleei tonu atseginez hitz egitea, gutxiespenak saihestea, jarduera dena delakoa izanda neska eta mutilak eredutzat hartzea, esaldi txikigarria eta superlatiboak ekiditea eta genero estereotipo tradizionalak hausten dituzten gizon eta emakumeen erreferentzia ereduak erakustea (Vilanova eta Soler, 2012).

Horrez gain, saioak antolatzeko moduak garrantzia handia du, saioa modu batekoa edo bestekoa izan, hezkidetzalea ala erresistentzia indartzen duen heziketa izango baita (Vilanova eta Soler, 2012). Saioak antolatzeko modu hezkidetzalea izateko hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

Taldearen osaketari dagokionez, erabilitako metodoa dena delakoa izanda, haur guztiak eroso eta seguru sentitzea bermatu behar da, eta hori talde mistoak ez du beti ahalbidetzen (Vilanova eta Soler, 2012). Taldekatze librea ahalbidetzea ideia aproposa da, ikasleak eroso sentitzen diren ikaskideekin jartzeko, eta ondoren irakasleek talde handiagoak osatzeko neurriak ezartzeko aukera izan dezaten (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, taldekatze

mistoa posible den kasuetan progresiboki egitea gomendatzen da, eta beste sexukoa den pertsona bakarria badago, ezinbestekoa da gustura sentitzeko formula eta estrategiak bilatzea (Vilanova eta Soler, 2012).

Espazioaren erabilerari dagokionez, ikasle orok espazio ezberdinetan segurtasuna hartzeko eta haietan trebetasunak garatzeko neska zein mutilek eremu nagusi, zabal, txiki eta periferikoak erabiltzea eta normalean erabiltzen diren espazioak aldatzea gomendatzen da, esaterako, lorategietan jardunez (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, ikasleekin espazioari buruzko hausnarketak egitea aproposa da, horren erabilerarako alternatibak elkarrekin bilatzeko (Vilanova eta Soler, 2012).

Materialari dagokionez, jakina da historikoki gorputz hezkuntzan erabili izan den material ia gehiena estereotipatua dela, eta hori ekiditeko, garrantzitsua da saioetan erabiltzen den materiala dibertsifikatzea, estereotipatuena (baloiak, sokak, etab.) jarduerarako oztopo izan ez daitezen (Vilanova eta Soler, 2012). Bestalde, gomendagarria da ikasle bakoitzak saio edo ikasturteko uneren batean material egokia izatea, materiala zuzen banatuz, material mota ezberdinak erabiliz eta horien ezagupena emanaz, ikasleek esperientzia berriak izateko eta beti ez jarduteko material estereotipatuarekin (Vilanova eta Soler, 2012).

Ikasleei material alternatibo eta propioa eraikitzeke aukera eskaintzea aproposa da (esaterako, kometak), hala, bakoitzak bere burua autogestionatzen eta materiala sortu ostean egindakoa baloratzen ikas dezan (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, ikasle eta irakasleek materialei esleitzen zaien "maskulino" eta "femenino" etiketari buruzko hausnarketak egitea garrantzitsua da, hala ikasten baita materialak ez duela sexurik eta bere erabileraren bitartez garatzen diren gaitasunen arabera baloratu behar dela (Vilanova eta Soler, 2012).

Jarraitzeko, saioen diseinu eta ebaluazioari dagokionez, jarduera lehiakorrei eta lehiarik gabekoei denbora eta garrantzia bera ematea gomendatzen da, gorputz hezkuntzako saioetan askotariko jarduerak sustatuz trebetasun eta gaitasun desberdinak eskuratzeko (Vilanova eta Soler, 2012). Izan ere, horrela, norbanako bakoitzak arrakasta izango duen trebetasuna aurkitzeko eta hartaz disfrutatzeko aukera izango du, horrekin batera autoestimua hobetu eta kirol-jarduera atseginak ezagutuz (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, helburuak pixkanaka ezartzea eta zailtasun mailak egokitzea garrantzitsua da, gaitasun bakoitzari behar duen tarte eskaintzeko eta pertsona bakoitza bere trebetasunen arabera ebaluatzeko; betiere, parekidetasuna ardatz izanda (Vilanova eta Soler, 2012).

Bestalde, karga sexistarik ez dituzten jarduerak programatu behar dira, eta rola definitituta edota genero-esleipenak dituzten jarduerak egin nahi badira (esaterako, areto

dantzak) jarduera osagarrien bidez egitea gomendatzen da, rol edota estereotipo horien suntsipena landuz eta ikasle zein iraskasleen gaitasun kritikoa suspertuz (Vilanova eta Soler, 2012).

Azkenik, funtsezkoa da gaitasun motorrari buruzko hausnarketak egitea eta gorputz hezkuntzan egiten diren kirol lehiakorrez gain parte hartzaileen trebetasuna aintzat hartu eta hori ebaluatzeko modu alternatiboak sortzea (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Beraz, laburbilduz, hezkidetzaren sustatzeko, hezkuntzan lan egiten duten eragilearen eragina nabarmena da (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

2.5. MARKO TEORIKOA: TEORIA FEMINISTAK

Lan hau garatzeko genero ikuspegia hartu zen oinarrian. Modu horretan, teoria feminista ezberdinen ildoak ezagutzea lagungarri izan zen eredu edota baliabide hezkidetzazaleagoak jorratzeko, eta baita errealitatearen azterketa egiterako garaian benetan parekidetasunean oinarritzen ez ziren jarrerak hauteman eta egoera ikertzeko ere. Ildo horretan, Flintoff eta Scratonek adierazi zuten moduan (2013), urteak pasa ahala errealitatearen ikerketa eta gertaerak geroz eta xehetasun handiagoz aztertuz, teoria feminista berriak azaleratzen joan dira eta teoria feminista horien olatu ezberdinez baliatzea garrantzitsua da. Izan ere, teoria feminista berri horiek ez dituzte aurretik existitzen zirenak ordeztzen, aspektu berdintsu batzuk izaten jarraitzen baitituzte. Beraz, ez dira elkar baztertzailerak, eta zenbat kasutan, elkar osagarriak izan daitezke. Horregatik, lan honetan oinarri-oinarrian mugimendu feministak emakumezkoen (zein gizonezkoen) askatasuna xede zuela hartu zen, horretarako gizarte-harremanak eraldatzea beharrezkoa zela azpimarratuz, sexuaren araberako hierarkia eta ezberdintasunekin amaitzeko, generoa eraikuntza sozial moduan jorratuz (Scraton eta Flintoff, 2013).

3. LANAREN HELBURUA

Lan honen helburu nagusia gorputz hezkuntzan hezkidetzaren sustatzeko ildoak aztertu eta bermatzea izan zen. Gaur egungo errealitatearen hausnarketa bidez hezkidetzazalea izango den proposamen bat garatzea, hezkidetzaren bidean dauden oztopo eta premiez jabetuta.

4. METODOLOGIA

4.1. SARRERA/DISEINUA

Ikerketa hau metodologia kualitatiboan oinarritu zen. Metodologia kualitatiboa, metodo eta teorien hautaketa egoki egitean, parte hartzaileen ikuspegi ezberdinak ezagutu eta aztertzean, ikertzailearen eta ikerketaren gogoeta egiteko gaitasunean eta ikuspegi zein metodo ezberdin ugariaren presentzian oinarritu zen, ezagutza sortzeko prozesu bat izan baita (Flick, 2007).

Lan honekin errealitate soziala ulertzea izan zen helburua, zehazki hezkidetzak errealitatean jorratzen duen papera ulertzea, eta hori ulertuta, errealitatearen transformazio bat egiteko argibideak izan eta etorkizunera begira hezkidetzak sustatzeko ildoak indartzea. Horretarako, metodologia kualitatiboaren bidez egitura zein egoerak beraien testuinguruan aztertu eta analizatu ziren, errealitatearen izaera sakona, harreman-sistema eta egitura dinamikoa identifikatuz (Pita eta Pértegas, 2002).

4.2. PARTE HARTZAILEAK

Parte hartzaileak hautatzeko nahitako laginketa erabili zen (Casal eta Mateu, 2003). Inklusio irizpideei dagokienez, Olabide Ikastolako DBH4ko ikasleak izan ziren behatu eta ikertuak, praktikan izandako erreferentzia taldekoak. Gainera, gela horretako gorputz hezkuntzako irakasleari zein heziketa fisikoko beste irakasle bati egin zitzaizkien galderak, guztien arteko lotura egin eta ikuspuntu ezberdin zein guztien hitz eta jarduna ikertzeko.

Hala, guztira 30 pertsona inguru izan ziren parte hartzaileak. Ikasleek 15-16 urte zituzten, horietako bik izan ezik, errepikatzaileak baitziren. Bestalde, gela horretako neska eta mutil kopurua nahiko orekatua zen, 14 mutil eta 13 neska. Ikasle guztiak Gasteiz hirikoak edo inguruko herrietakoak ziren.

Elkarrizketatuak izan ziren bi irakasleek lau urte edo gehiago zeramatzaten bertan lanean. Gainera, elkarrizketatuak gaiarekin lotura zuzena zutenak izan ziren, heziketa fisikoko hezitzaileak eta oraindik ere mundu horretan lanean zihardutenak. Hautaketa ahalik eta modurik egoki eta zehatzenean egiteko, Vallesen (1997) irizpide hauek hartu ziren aintzat:

- Nortzuk daukate informaziorik aipagarriena?
- Zein dira eskuragarrienak fisikoki eta sozialki?

- Zein daude informatzeko prest?
- Zein dira informazioa zehaztasunez emateko gai?

Informatzaileak euren esanguragarritasunean oinarrituz aukeratu ziren. Beraz, informatzaile aipagarri, eskuragarri, prestatu eta zehatzak izan ziren hautatuak (Valles, 1997).

Bestetik, ikerketa honetarako aukeraturiko bi irakasleei baimen informatua eman zitzaion, irakurri eta ados egonez gero ikerketan parte hartzeko. Baimen informatuaren helburua, ikerketan parte hartuko zuten pertsonen lanaren izaeraren inguruko azalpen garbi eta zehatza jasotzea izan zen, beteko zuten rola inguruko argibideak emanez. Beraz, irakasle bakoitzak aukera izan zuen ikerketan parte hartu nahi zuen ala ez erabakitzeko. Gainera, etikako irizpideak errespetatu eta anonimotasuna mantendu zen lan osoan zehar. Izan ere, izenak ordeztu eta ezabatu egin ziren (Ruiz Olabuenaga, 2012).

4.3. DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK

Datuak jasotzeko, batetik, elkarrizketa erdi-egituratua erabili zen, eta horretarako, gorputz hezkuntzako bi irakasleri hainbat galdera burutu zitzaizkien, beraien ikuspuntutik gaur egun hezkidetzak errealitatean jorratzen duen papera ulertzeko eta zehazki gorputz hezkuntzan hezkidetzak dituen oztopo eta premiez jabetzeko. Izan ere, elkarrizketa mota horretan, elkarrizketatuari bere ikuspuntua era librean azaltzeko aukera eman zitzaion (Flick, 2007).

Elkarrizketa erdi-egituratuek ahalbidetzen duten moduan, elkarrizketatuek ezagutza-emari konplexua zuten aztergai zen gaiari buruz, eta horrek, elkarrizketaren muina zein ondoren ateratzeko baliagarriak izan ziren interpretazio zein datuak aberastu zituen (Flick, 2007). Izan ere, Olabide Ikastetxeari zein irakasle horiek bideratzen zuten irakasgaiari buruzko galderak egin ziren, elkarrizketatuak inondik inora informazio berririk aurkitu eta esperimintatu behar ez izateko, eta galdera irekiak egin ziren, elkarrizketatuak berehala eskura zuen ezagutzaren bidez erantzun ahal izateko (Flick, 2007).

Elkarrizketak modu presentzialean eta aurrez aurre egitea espero bazen ere, Covid-19aren hedapenaren ondorioz estrategia aldatu zen. Horrenbestez, apirilean elkarrizketako gidoiak e-postaz bidali ziren, sakontzeko galderak irakasleek etxean bete eta erantzunak itzuliz. Beraz, aurrez aurre eginiko elkarrizketetan goxotasuna edota lasaitasuna transmititzeko aukera hobea egongo zen arren, ahalik eta sarrera egokiena egiten saiatu zen, lasaitasuna eta erosotasuna transmitituz.

Bestalde, gidoi estrukturatu zehatz bat prestatu zen galderak modu presentzial eta zuzenean egiteko. Hala ere, hala egiteko aukera izan ezenez, gidioia egokitu egin zen. Gidoiak, egitura zehatza jarraitu zuen: hasieran hurbilketa sarrera, gaur egungo errealitatearen berri zein gidioia beteko zuten norbanakoen berri emanez, ondoren hurbilketa galderak, jarraian, galdera zehatzago eta espezifikoagoak, zehazki saioak antolatzeke moduei erreferentzia eginez, eta amaitzeko irakasleek lan egiten zuten zentroari buruzko galdera orokorrak, testuingurua hobeto ulertu eta ezagutzeko (Juaristi, 2003).

Bestetik, behaketa parte hartzailearen bidez ere hainbat datu bildu ziren. Behaketa parte hartzaileari, landa estrategia ere deitu dakioke, eta honako hauek konbinatuz jardutean datza: dokumentuen azterketa, erantzunak, informatzaileei egindako elkarrizketak, zuzeneko parte hartzea eta behaketa zein introspektzioa (Flick, 2007). Kasu honetan, faktore horiek guztiak kontuan hartuta hezkuntza komunitateko eragile ezberdinek hezkidetzarekiko zituzten jarrerak eta jardunak aztertzea izan zen xedea.

Behaketa gorputz hezkuntzako saioetan egin zen. Horretarako testuinguru edota eremua ikastetxeko instalazioak izan ziren, bereziki hiru instalazio ezberdin: barruko frontoia, tatamia eta kiroldegia. Saio gehienak kiroldegian burutu ziren. Gainera, inklusibitate irizpideak jarraituz ikasgela horretako ikasle guztiak behatu ziren lau hilabetez, astean bi aldiz, eta saio bakoitzak gutxi gora-behera 50 minutu iraun zituen. Guztira, 11 astetan 22 saio izan ziren behatuak.

Behaketan, ikertzailea eremuan bete betean sartu zen, beraietako bat izango balitz moduan, bere parte hartzearen ondorioz ikusten zen horretan ere eragina izanik. Izan ere, ikertzaileak ikasleek gorputz hezkuntzako saioetan egin zituzten jardueretan parte hartu zuen, batzuetan beste kide bat moduan izanik eta beste zenbaitetan laguntzak ahalbidetuz. Beraz, ikertzaile-hezitzaile eta lagun rolen bidez burutu zen ikerketa.

Landa oharrak behaketako informazio bilaketan zehar hartu ziren, eta horiekin eguneroko bat osatu zen. Ohar horiek gorputz hezkuntzako saioak amaitu eta orduan jaso ziren, gerorako utzi gabe, ahalik eta jarrera zehatz eta espezifikoenak adierazteko. Datu horiek, behaketa orri eta egituratutako eskemak erabiliz jaso ziren (Flick, 2007).

Gainera, eguneroko bizitzan osagai ziren egoerak kontuan hartu ziren eta uneko errealitatean kokatu zen ikerketa, analisi bat eginez giza existentziaren interpretazio eta ulermena areagotzeko (Flick, 2007). Izan ere, ikerketa horretan errealitatea aztertzea helburu

izanik, gorputz hezkuntzako beharrak identifikatu eta horien analisia egitea izan zen xedea, ondoren errealtatean gertatzen zena hezkidetzaz sustatzeko bidean garatzeko.

Bestetik, ikerketa prozesu ireki, malgu eta oportunistak izan zen, eta arazoa etengabe birdefinitzea eskatu zuen, betiere, giza existentziaren ingurune zehatzetan jasotako gertaeretatik abiatuta (Flick, 2007). Gainera, kasu kualitatiboak sakon aztertzeko ikuspegi eta diseinua paregabea izan zen eta behaketa parte hartzailearen bidez parte hartzen zuten norbanakoen jarreratik rol baten edo batzuen irudikapena egin zen, jarrerak behin eta berriz errepikatu baitziren (Flick, 2007).

Modu horretan, landa eremuko norbanakoekin harremanak egiteko aukera egon zen, parte hartzailea izan baitzen ikertzailearen jarrera, eta beraz, harremanetan egon zen ikertuak izan zirenekin. Azkenik, zuzeneko behaketa erabiltzea ahalbidetu zen, informazioa biltzeko beste metodo batzuekin batera (Flick, 2007).

4.4. DATUEN ANALISIA

Datuen analisia egiteko edukien analisia teknika erabili zen (Ruiz Olabuenaga, 2012). Datuen analisirako, elkarrizketa erdi-egituratuak erantzun orriak (bi irakasleak) eta behaketa parte hartzailearen bidez jasotako informazioaren landa oharrak erabili ziren. Datuak eta edukia hiru aldiz irakurri ziren eta lan honetan proposatutako galderekin zerikusia zuten zatiak azpimarratu ziren, parte hartzaileen esanahiak ulertu nahian. Ildo berean, kategorizazioaren bidez zati bakoitza kodigo ezberdinekin erlazionatu zen eta kodigo horiek kategoria eta azpi-kategoria ezberdinetan antolatu ziren (Ruiz Olabuenaga, 2012).

Jarraian azaltzen da sorturiko kategoria-sistemaren laburpen taula:

1. Taula: Kategoria-sistema.

Kategoriak	Azpi-kategoriak	Kodigoak
Hezkidetzaren premia	Hezkidetza	-Parekidetasuna oinarri -Zailtasunak -Etorkizunerako ildoak -Curriculum ezkutua -Hezkidetzaren garapena
Saioen antolaketa	Taldekatzea	-Taldekatze mistoak eta libreak
	Espazioa	- Partekatzea -Espazioaren erabileran ezberdintasunak -Hausnarketak
	Materiala	-Material mota -Materialaren banaketa -Hausnarketak
	Jardueren diseinua eta ebaluazioa	-Jarduera ez lehiakor eta lehiakorrak -Gaitasun ezberdinen eta berrien garapena -Jarduera sexistak eta finkatutako rolak
	Jolas librea	-Espazioaren erabilerako ezberdintasunak
Irakaslegoaren komunikatzeko era		-Mutilenganako eta neskeenganako arreta -Etenaldiak saihestea -Ahots tonua -Estereotipoak haustea

5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Eskuratutako datuetatik honako alderdiak suspertu ziren: hezkidetzaren premia, saioak antolatzeko modua eta irakaslegoaren komunikatzeko era. Jarraian atalka daude azalduta.

5.1. HEZKIDETZAREN PREMIA

Gorputz hezkuntzako saioetan hezkidetzaren lantzea garrantzitsua iruditzen zitzaion irakasleei, gizartea parekidetasunean oinarritu behar delako eta alor guztietan landu behar delako. Gainera, zehazki gorputz hezkuntzan, hezkidetzak duen garrantzia aldarrikatu zuten, irakasgai hori gorputzaren bidez lantzen delako eta bertan estereotipoak oso markatuta ageri direlako: “Bai. Alor guztietan landu beharreko gaia dela uste dut. Gorputz hezkuntzan bereziki, estereotipoak markatuta agertzen direlako, izan ere gorputzaren bitartez lan egiten dugu” (2. Irakaslea).

Izan ere, kirolak maskulinizazio prozesu bat irudikatzen du eta prozesu horretan estereotipoek izugarriko garrantzia hartzen dute, maskulinizazio hegemonikoa jarraitzen ez dituzten portaerak zigortzeraino (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Neska asko ez dira sartzen maskulinitate hegemonikoko estereotipoen barruan, eta horrenbestez, joera egokien barruan sartzeko bidea ixten zaie, beraien jardura fisikoa egiteko era gutxietsiz (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Beraz, arazo horri aurre egiteko eta norbanako guztien parekidetasuna lortzeko, edozein hezkuntza planteamendutan hezkidetzaren sustatzea eta irizpide nagusi moduan hartzea garrantzitsua da (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Gainera, gorputz hezkuntzako zenbait irakasle beraien saioak ahalik eta hezkidetzailenak izaten saiatzen ziren, horretarako hainbat neurri hartuz: “Ikasleengan jarritako espektatibak, hizkuntza inklusiboarekin, adibideak jartzerakoan eta lantzen diren edukiekin” (2. Irakaslea).

Bestalde, gorputz hezkuntzan hezkidetzak zuen garrantzia azpimarratuta, teoria praktikan aplikatzerako garaian zailtasunak ikusten ziren: “Lizentziatura eta irakaskuntzako masterra amaitu nuenean ideia hauek nahiko presente nituen eta ideia hauek nirekin jarraitzen duten arren, egia da egunerokotasunean sartzen naizenean, momentu batzuetan ideia horiek berreskuratzea eta aplikatzea ez zait hain erraza egiten” (2. Irakaslea).

Hala ere, zenbait kasutan, hezkidetzaren oztopatzen zuten gabezia edota hutsuneak ez zeudela adierazi zen, eta beraz, hezkidetzaren ez zela irizpide garrantzitsutzat hartzen.

“Egia esanda programatzeko momentuan ez dut hezkidetzaren irizpide garrantzitsu bezala. Ohartzen naiz programatutako arlo batzuk lagungarriak direla benetazko hezkidetzaren lortzen laguntzeko eta beste batzuk aldiz ez” (1. Irakaslea).

“Ez ditut oztoporik ikusten, baliteke era zuzenean ez lantzea orain arte beste lehentasunak markatu direlako, baliteke ere izatea ez dakigulako zein den modurik egokiena” (2. Irakaslea).

Hezkuntza esparruan hezkidetzaren garrantzitsua da, sexu ezberdinen arteko parekidetasunean oinarritzen delako, eta horien arteko diskriminazioa ukatzen duelako, eta hori gabe, ezin delako parekidetasunean jardun (Garcia et al., 2017).

Gabezia horiek curriculum ezkutuaren bidez ematen dira, eta curriculum ezkutua transmititzen eta jasotzen dutenak curriculumaren benetako egin-nahiaz ohartzen ez direlako gertatzen da, eta horregatik egiten zaie gorputz hezkuntzako irakasleei horren zaila curriculum mota hori antzematea (Vilanova eta Soler, 2012). Izan ere, gaur egun, zenbait egoera onartezin badaude ere, zailagoa egiten da jarrera horiek hauteman eta horien aurka egitea (Vilanova eta Soler, 2012).

Gainera, sarri, hezkidetzaren oztopoak jada deuseztatu direla pentsatzen da, baina eraldaketa bat emateko ezinbestekoa da ezberdintasunak hautemateko gaitasuna garatzea, hau da, pedagogia sozio-kritikoa bermatzea, heziketa fisikoa gogoetarako eremu eta agente transformatzaile bihurtuz (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Bestetik, hezkidetzaren urteak pasa ahala gorputz hezkuntzako irakasgaien izan duen garapenari dagokionez, gorputz hezkuntzako irakasle moduan urte kopuru ezberdina zeramaten irakasleek irizpide ezberdina zuten. Gorputz hezkuntzako irakasle gisa urte gehien zeramatzan irakasleak urtez urte eskarmentua hartzen joan zela adierazi zuen, eta horren bidez, gai edota jarrera batzuk ekidin eta beste batzuk indartu behar izan zituela, aldaketa nabarmena zegoela oraingo eta orain dela urte batzuetako errealitateen artean: “Eskarmentuak argi uzten dit zein jardueretan egon daitekeen egoneza genero bat edo bestearen aldetik. Hori kontuan izanda, urteekin gai batzuk ekiditu ditugu (eskubaloia, futbola -neurri batean-,soinketa) eta batzuk indartu (patinaia, boleibola, badminton, jarduera boluntarioak...)” (1. Irakaslea).

Bestetik, bost urte baino gutxiagoz lanean jardunda, lehengo zein gaur egungo errealitate egoera berdintsua zela adierazi zuen beste irakasleak: “Arlo honetan zer esan gutxi dut, aurten nire 4.urtea delako. Berdintsu jarraitzen duela esango nuke” (2. Irakaslea).

Gainera, hezkidetzak gorputz hezkuntzan zuen premia azpimarratuz, etorkizunera begira egin beharreko lanketa eta programak garatzerako orduan hezkidetzaren irizpide nagusizat hartzeko premia aldarrikatu zen, eta irakasgai guztietan presente izan beharreko irizpide izatera igaro beharko litzatekela adierazi zen: “Bi urteko geletatik, programatzeko irizpide nagusi bezala kontenplatu eta ikasgai guztietan presentzia izan” (1. Irakaslea).

Hala, heziketa fisikoan irakasleak hartzen duen paperak garrantzia izugarria du, eta horretarako, ezinbestekoa da gorputz hezkuntzako saioak ematerako orduan hezkidetzaren irizpide gisa hartzea, hori nola sustatu jakitea eta planteamendu hezkidetzailleak sustatzeko baliabideak izatea (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2018).

Bestalde, irakasleek askotan nola jokatu ez zekiten arren, saioen inguruko hausnarketak egitea eta etorkizunerako baliagarriak izan zitezkeen jarraibideak ezagutzea baliagarria iruditu zitzaizkien, horiek saio teoriko zein praktikoen egiten ez zirenen arren: “Baliagarria da, baina aurretik esan dudan moduan, askotan teoria bezala kontenplatu dute eta errealitatean ez dute aplikatzen” (1. Irakaslea).

Gorputz hezkuntzako saioetan, saioen, gertaeren edota esparru ezberdinen erabilerean (materiala, espazioa, etab.) inguruko hausnarketak egiteak garrantzi handia du, saioetan erabiltzen diren baliabideen akats zein hobekuntzak proposatu eta eztabaidatzeko (Vilanova eta Soler, 2012). Izan ere, hausnarketaren bidez errealitatea zalantzan jarri eta alternatiba egokiagoak aurkitzen saiatzea da helburua, errealitatean arazo diren jarrera edota jardueren ohartu eta norbanako bakoitzak horren aurkako eta aldaketarako papera hartu dezan (García et al., 2017).

5.2. SAIOEN ANTOLAKETA

Hezkidetzaren bidean hezkuntza planteamenduak eta saioak antolatzeko moduak izugarriko garrantzia du, izan ere, saioak era batera edota bestera antolatu, erresistentziatzeko saio edota saio hezkidetzailleak izango dira (Vilanova eta Soler, 2012).

5.2.1. TALDEKATZEA

Gorputz hezkuntzako saioak antolatzerakoan eta taldeak egiterako orduan, hainbat estrategia ezberdin hartzen ziren. Zenbaitetan, neska eta mutilen kopurua orekatzeko moduko

taldeak egiten ziren, beste batzuetan ausaz egiten ziren, besteak beste: “Taldekatzek era askotakoak egiten ditut; batzuetan ausaz egiten ditut, besteetan tutoreak jarri dituen taldeak (gelan taldeka esertzen direlako), mistoak (nik eginda), beraiek nahi duten bezala, listaren arabera, lagunen arabera, etab.” (2. Irakaslea).

Bestalde, taldekatzek ezberdinak izan ohi ziren jardueren edota saioaren helburuaren arabera. Jarduerak ebaluagarriak zirenean, hau da, ikasleak jardueran egiten zutenaren arabera ebaluatzen zirenean eta ebaluaketa metodoa taldeka zenean, talde mistoak osatzen ziren, eta irizpide hori erabiliz hezkidetzak lantzen zela uste zen. Taldekatzek horiek irakasleek egiten zituzten.

“Taldekatzek mistoak erabiltzen ditut batez ere eskatutako jarduerak denetan ebaluagarriak eta taldeka”

“Ebaluatzen diren taldeko lanetan mistoak egitea da irizpidea uste dudalako hezkidetzak lantzen duela” (1. Irakaslea).

Gainera, irakasleek osatzen zituztenean taldeak, ikasleak dinamika horrekin oso ohituta zeudela adierazten zen. Beste zenbait kasutan, aldiz, ikasleek talde mistoetan jardun baino beraien harremanen arabera taldekatzek egitean gusturago jokatzen zutela adierazi zen: “Normalean gusturago egoten dira era librean batzen direnean, hau da, beraien harremanen arabera batzen direnean. Hala ere, ez dira nire erabakien kontra jartzen, nahiko ohituta daude gelako edozeinekin egoten” (2. Irakaslea).

Bestalde, kasu batzuetan, ikasleak talde mistoetan ez zirela batere eroso sentitzen ikus zitekeen, eta nolana ere, beraien lagunekin jardun nahi zutela. Izan ere, irakasleek taldeak egiterakoan, lagunekin jartzeko estrategiak bilatzen saiatzen ziren ikasleak, eta ez bazuten lortzen, askotan, jarduerak egiteko nahi ez zutela adierazten zuten.

Gaurkoan talde mistoak osatu dituzte. Taldeak irakasleek egin dituzte, zenbakiz. Hala, irakasleek taldekatzek dinamika hori erabiliz egingo dituela adieraztean, neska gehienak lekuz aldatzen saiatu dira, beraien lagun minarekin jartzeko eta ez edozeinekin (landa oharrak, 2019-10-30).

Talde misto bat mutil askoz zein neska batez osatuta egon da, eta neska horrek bere taldekide guztiak mutilak izanda eta bera neska bakarra izanda jardueran parte hartu nahi ez duela adierazi du (landa oharrak, 2020-02-25).

Hori horrela, Vilanova eta Solerrek (2012) adierazi zuten moduan, talde mistoak ez du beti erosotasuna eta segurtasuna bermatzen, eta horregatik, talde mistoen osaketa ez da beti

taldekatzeko modurik eraginkorrena. Horretarako, taldekatze misto bat progresiboki egitea gomendatzen da (Vilanova eta Soler, 2012).

Horregatik, taldeak osatzerako orduan garrantzitsua da denen erosotasuna bilatzea, eta taldekoren bat gustura ez badago, formulak eta estrategiak bilatu behar dira, ikasle guztiek baitute gorputz hezkuntzan gustura jarduteko eskubidea (Vilanova eta Soler, 2012).

Bestalde, ikasleak talde mistoetan baino neskak neskekin eta mutilak mutilekin jardunda erosoago eta gusturago sentitzen ziren, eta horren ondorioz, ikasleei taldekatzeak beraien kabuz egitea ahalbidetzen zitzaizkionean, lagunekin jartzen ziren, gusturen eta erosoan sentitzen zirenekin: “Bikoteak egiteko eskatu die irakasleak eta neskak neskekin zein mutilak mutilekin jarri dira, talde mistorik osatu gabe” (landa oharrak, 2019-10-30).

Hori, zenbait arrazoiengatik izan ohi zen. Izan ere, gorputz hezkuntzako mutilen eta nesken jarrerak ezberdinak ziren, eta horrenbestez, ikasle neska askok ez zuten mutilekin jardun nahi izaten.

Gaurko saioan baloiarekin jardun dute, eta mutil batek neska bati baloia pasatu dionean beste mutil bat atzetik etorri eta neska horri baloia kentzen saiatu da. [...] Neska haserretu egin da eta ea baloia zergatik kendu dion galdetzean mutila barrez lehertu da (landa oharrak, 2020-02-05).

Baloia zangoetatik kentzeko moduko jarrerak partaide batzuk beste batzuk besteko gaitasunak ez dituztenean gerta litezke eta horiek trebeak diren kideek menpera ditzakete heziketa fisikoko saioetan (Soler, 2009).

Nork erabakitzen du zein den trebea edota txarra? Jokabide horien bitartez neska askok mespretxua jasaten dezakete, eta horregatik, beraien burua jokotik at uztea jokoaren dinamikarentzat onena dela adierazten dute (Soler, 2009).

Zenbaitetan, mutilek parte hartze handiagoa izaten dute neskek baino, eta neskak gutxiesten dituzte, baina egite hori ez da guztiz onartezintzat edota zigortu beharreko ekintzat hartzen, askotan irabazteko abantaila moduan hartzen baita, etika alde batera utzita, jarduera inklusibo bat egin eta ikasleen gaitasunak indartu beharrean ageri den asmo bakarra irabaztearena izanik (Soler, 2009).

5.2.2. ESPAZIOA

Espazioaren erabilerari dagokionez, heziketa fisikoan jardueraren arabera espazioa ezberdin banatzen zen. Hala ere, saioen hasiera eta amaiera beti berdina izan ohi zen. Ikasleak gelara sartzean, irakasleek egingo zituzten jardueren berri ematen zieten, eta horiek banku suediarretan eserita entzuten zituzten azalpenak. Saioaren amaieran, banku berdinetan esertzen ziren ikasleak irakasleek agurtu arte.

“Unitatea eta saioaren arabera alda daiteke espazioaren erabilera. Normalean saioaren hasiera eta amaiera markatzeko ikasleak banku suediarretan esertzen dira eta esertzeko modua nahi duten bezala egiten dute. [...] Saioaren beroketa eta zati nagusia egiteko banaketa aldakorra da, adibidez badmintona (DBH2.mailan) unitatea lantzean, hasieran era indibidualean, bakoitzak nahi duen lekuan baina tartea utziz besteekiko, geroago bikoteka kiroldegiaren luzeran eta espazio osoa okupatuz. [...]” “Ez dut zehaztuta aparteko ezer, espazio guztia denona da eta uste dut ikasleek ere horrela sentitzen dutela” (2. Irakaslea).

Gorputz hezkuntzako unitate didaktikoetako saioetan, mutilek eta neskek espazio bera erabiltzen zuten, irakasleek ezartzen baitzieten non jardun: “Unitate didaktikoetako saioak egiten ditugunean esango nuke baietz, orokorrean espazio bera erabiltzen dutela” (2. Irakaslea).

Hala ere, askotan irakasleek jardun beharreko espazioa zehazten bazuten ere, ikasle bakoitzak edota ikasle talde bakoitzak aukeratzeko eremu zabal horren barruan non kokatu. Horrenbestez, gehienetan, mutil eta nesken arteko espazio ezberdintasunak nabariak ziren.

“Saioaren gehiengo zatian nik esaten diet espazioaren zonaldea: luzeran, zona barruan, zelai erdian, etab. baina behin hori esanda, bakoitza jartzen da nahi duen tokian. Ariketa zehatz batzuetan listaren arabera lerrokatzea eskatu diet” (2. Irakaslea).

Gaurkoan neskek eremurik eroso eta onena hartu dute jarduera egiteko, eta mutilek ez diete espazio horretan jarduten utzi. Gainera, eremua indarrez hartzen saiatu dira eta neskak gogaitzen, bertatik joan eta mutilek eremurik onena hartzeko: baloia nesken eremura botatzen, nesken eremura sartu eta bertan jarduten, etab. (landa oharrak, 2019-12-18).

Jarduerak diseinatzeko orduan neska zein mutilek eremu nagusi, zabal, txiki eta periferikoak erabiltzea gomendatzen da, teknika ezberdinez baliatuz (Vilanova eta Soler, 2012). Izan ere, horrela, guztiek jardungo dute espazio ezberdinetan eta hala, neska zein mutil

oro espazio ezberdinetan segurtasuna handituz joango da, horietariko bakoitzean trebetasun ezberdinak garatuz (Vilanova eta Soler, 2012).

Gainera, ikasleekin espazioaren banaketari eta gorputz hezkuntzako saioetan espazioaren jabetzaren inguruko ezberdintasunei buruz hitz egiterako orduan, mutil gehienek kasualitate hutsa zela adierazten zuten, ez zutela nahita egiten eta neskek ez zutela espazio horretan jardun nahi izaten. Horrenbestez, ikasle zein irakasleek erabileraren inguruko hausnarketak egitea gomendatzen da, erabilera okerreko jardunak identifikatuz berriz ez gertatzeko (Vilanova eta Soler, 2012).

5.2.3. MATERIALA

Gorputz hezkuntzako saioetan material ezberdina erabiltzen zen. Hala ere, gehien erabiltzen zen materiala baloia zen, baina horrez gain, uztaiak, konoak, koltxonetak, musika, etab. ere erabiltzen ziren: “Normalean tamaina eta material ezberdinetako baloiak. Baina badira saioak non ez dudan erabiltzen materialik edo beste batzuetan erabiltzen dudan materiala oihal txuri bat den, adierazkortasuneko unitatean bezala, edo musika tresna, aerobikeko unitatean bezala” (2. Irakaslea).

Materialaren erabilera eta banaketa aintzat hartzea garrantzitsua da saio hezkidetzaille bat burutu nahi bada, izan ere, historikoki gorputz hezkuntzan erabili izan den materiala estereotipatua izan da, eta material mota hori ekiditea zein materiala dibertsifikatzea hezkidetzaren bidean aurrerapauso handia da (Vilanova eta Soler, 2012).

Gainera, material estereotipatu horiek erabiltzean, futbolaren kasuan adibidez, neska batzuk erresistentziaz jarduten zuten, baina saskibaloia, hockeya edota bestelako taldekako jardueretan, neska zein mutilek gustura aritu ohi ziren. Bestalde, zenbait kasutan neska zein mutilek jardueran parte hartu nahi ez izatearen auzia ikasleen gustuen araberakoa zela adierazten zen: “Futbola denean bai, neska batzuk gustuko izan arren. Beste motatako kirolak, nahiz eta taldekako kirolak izan (saskibaloia, bolei, eskubaloia, hokeia) neskek eta mutilek berdintsu parte hartzen dute” (2. Irakaslea).

Materialaren banaketari dagokionez, materiala modu ekitatiboan banatzen saiatzen ziren irakasleak. Hala ere, hezkidetzaren irizpide nagusi moduan jarraitzen ez zela adierazten zen, materiala ez zegoela estereotipatua adieraziz: “Berrit diot hezkidetzaren ez dudala irizpide nagusi bat bezala jarraitzen baina gero gehiago ikusten dut materiala ez dagoela estereotipatua. Zorionez, gero eta atzerago geratzen ari da” (1. Irakaslea).

Hori horrela, Vilanova eta Solerrek (2012) ikasle bakoitzak saio edota ikasturteko uneren batean kalitatezko materiala izatea gomendatu zuten, eta horretarako materialaren banaketa modu zuzen eta ekitatiboan egin behar dela.

Gainera, ikasle guztien parekidetasuna lortzeko eta sexuen arteko diskriminazioa saihesteko, garrantzitsua da hezkidetzaren irizpide nagusi moduan hartzea, bestela, norbanako guztiak ez lirateke aukera berdinetan heziko, sexuarengatik ezberdinak izango liratelako (Garcia et al., 2017).

Bestalde, gorputz hezkuntzako saio gehienetan material tradizionala erabiltzen zen, hau da, material alternatiboa ez zen tradizionala beste erabiltzen: “Gehienbat material tradizionala erabiltzen dut; boleiko baloiak, saskibaloioak, badmintoneko bolantea, koltxonetak, beisboleko batea, etab.” (2. Irakaslea).

Material mota ezberdinez jabetzea eta gorputz hezkuntzako saioetan horren ezagupena ematea garrantzitsua da, ikasleek material tradizional estereotipatua erabiltzeaz gain material berria ezagutzeko eta horiekin esperientzia berriak izateko, esaterako, frisbeekin eta indiakekin jardunez (Vilanova eta Soler, 2012).

Hala ere, ikasleek beraien material propioa sortzeko aukera izan zuten esku pilotako modalitatean. Izan ere, gainontzeko ebaluazioetan, material tradizionala erabiltzen zen eta ikasleei ez zitzaion beraien materiala eraikitzeke espazio eta denbora ahalbidetzen: “Esku pilotan jokatzeko pilotak egiten dituzte. Gainontzeko materialak erositakoak dira”(1. Irakaslea).

Idea aurrerakoa da materiala ikasleek osatzearena, ikasle bakoitzak material alternatibo eta propioa eraikiz, beraien burua autogestionatzen eta eginiko lana baloratzen ikasten baitute (Vilanova eta Soler, 2012). Gainera, material berri eta alternatibo horren bidez jarduera ezberdinak egiteko aukera dute, eta horrela, ez dira beti jarduera berdina eta aurrez finkatuak izango, baizik eta ikasle bakoitzak sortu eta osatu duen materialarekin proposaturikoak (Vilanova eta Soler, 2012).

Materialarekin amaitzeko, gorputz hezkuntzako saioetan ez zen erabileraren inguruko hausnarketarik egiten, ez hala programatuta behintzat. Materialaren kategorizazio “maskulino” edota “femeninoaren” gaia azalratzean soilik jarduten zen horretaz, hau da,

hezkidetzaila ez zen egoeraren bat gertatzean: “Hausnarketa hori era programatu batean ez dut planteatu. Gelako egoerak noizbehin gaia azaleratu du” (1. Irakaslea).

Vilanova eta Solerrek (2012) adierazi moduan, ikasle zein irakasleek material ezberdinei zein jarduten duten materialari esleitu ohi zaien “maskulino” edota “femenino” etiketari buruzko hausnarketa egitea garrantzitsua da. Izan ere, hausnarketarik edota kritikarik egin gabe aurretik dauden sinesmenekin jarraitzen da, pentsatzen dena zergatik eta nola pentsatzen den hausnartu gabe, ohartu gabe materialak ez duela sexurik, eta materiala, horren erabileraren bitartez garatzen diren gaitasunen arabera baloratu behar da (Vilanova eta Soler, 2012).

5.2.4. JARDUEREN DISEINUA ETA EBALUAZIOA

Gorputz hezkuntzako saio eta jardueren diseinuari dagokionez, saio praktikoko gehienetan soilik kooperaziozko jarduerak egiten ziren, hau da, kompetiziozkoak ez ziren jarduerari denbora tarte handiagoa eskaintzen zitzaien. Hala ere, kompetiziozko jarduerak bazuten euren lekua.

G: Kompetiziozko zein kompetiziozkoak ez diren jarduerak egiten al dituzu?

“Saiatzen naiz kolaborazioa nabarmentzen baina ikasleek joera dute jarduera asko lehiaketan bihurtzeko” (2. Irakaslea).

Garrantzitsua da jardueren diseinu eta ebaluazioan lehiaketa jarduerak zein jarduera ez lehiakorrek konbinatzea, denbora eta garrantzi bera emanaz biei, eta jarduera lehiakorrek balore positiboak transmitituz egitea, irabazten eta galtzen ikasteko (Vilanova eta Soler, 2012).

Mutilek jarduera lehiakorretan gehiago gozatzen zutela ikus zitekeen, eta mota horretako jarduerari garrantzi handiagoa ematen zutela. Gainera, irabaztearren ahal zutena baino gehiago egiten zuten: “Gaurkoan eginiko saioa eta bertako jarduerak lehiakorrek izan dira eta nabaria izan da mutilek garrantzi handiagoa eman dietela jarduerari. Gainera, mutilek irabazteko nahiarekin ahal izan dutena baino gehiago ematen saiatu dira” (landa oharrak, 2019-12-18).

Bestalde, lehiakortasunik gabeko jardueretan zenbait mutilek lehia sortzeko joera zuten, galtzaile eta irabazle bat egongo balitz moduan jardunez. Beste zenbaitetan, askok,

jarduera ez lehiakorrek seriotasun gutxiagoz hartzen zituzten, eta irabazteko aukera ez zuten, saioaren dinamika hausten eta irakaslea zirikatzen jarduten zuten.

Lehiakortasunik gabeko jarduerak egin dituzte gaurkoan. [...] Hala ere, mutil asko jarduera kooperatibo hori ariketa lehiakor egiten saiatu dira, beraien gogoen %100a horretan jarriz [...] (landa oharrak, 2020-02-18).

Gaurkoan patinen gainean saskibaloian aritu dira ikasleak. Hala, irakasleak saskietatik ezin direla zintzilikatu adierazi dienean horiek orduan eta gehiagotan zintzilikatu dira [...] (landa oharrak, 2020-02-05).

Gutziz kontrakoa zen gorputz hezkuntzako saioetan neska gehienek izaten zuten jarrera. Izan ere, gehienek nahiago zituzten lehiaketarik gabeko jarduerak, eta ariketak konpetiziozkoak zirenean, jolas modura hartzen zituzten.

Saioan zehar klaseko neska batzuekin hitz egin dut eta lehiakortasunik gabeko jardueretan gustura jarduten dutela adierazi didate, eroso sentitzen direla eta mota horietako jarduerak direla beraien gustukoenak (landa oharrak, 2019-10-30).

Neskek, aldiz, jarduera lehiakor horiek jolas modura hartu dituzte (landa oharrak, 2019-12-18).

Nesken eta mutilen arteko jarreraren ezberdintasuna aurretik izandako esperientzietan oinarritu daiteke, izan ere, neska askok, sarri, jarduera lehiakorretan beraien baino trebeagoak diren kideek menperatzean mespretxua jasan izan dute, eta beraz, taldearentzat zein jokoaren dinamikarentzat onena euren burua baztertzea dela adierazi izan dute (Soler, 2009). Horrenbestez, testuinguru deseroso hori ekiditeko, nahiago lituzkete kooperaziozko jarduerak (Soler, 2009).

Hortaz, neska zein mutilen arteko jarreraren ezberdintasuna beraien jarduerarekiko erosotasun edota gozamenarekin zegoen lotuta, eta gorputz hezkuntzako saioetan, jarduera lehiakorretan batik bat, mutilek neskek baino gehiago gozaten zutela ikus zitekeen.

Gozamen hori lotuta egon daiteke heziketa fisikoko jardueretan izaten duten trebetasunarekin, trebea ez denak ez baitu gozaten (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Bestalde, trebea bere ezaugarriak zilegi, merezidun eta desiragarri direnean kontsideratzen da eta heziketa fisikoko saioetan kulturalki maskulinoak kontsideratzen diren gaitasun motorrek goi posizioa hartzen dutenez, mutilek izan ohi dira trebeagoak (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Hala ere, gaitasun motorra kontzeptu neutrotzat hartzen da sarri, eta horrela ez den arren, ikasle guztiek gaitasun berberak garatzeko gaitasuna dutela ziurtzat jotzen da, eta beraz, ikasle guztiei eskakizun berberak egiten zaizkie (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Horrenbestez, gaitasun motorraren esanahiaren inguruko hausnarketa egitea oso garrantzitsua da, zehazki, nola eta zertarako erabiltzen den, zeini egiten dion mesede, eta zeini kalte (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Gainera, saioetan egin beharreko esfortzua ohikoa baino handiagoa zenean, neska askok ariketa ez zutela egin nahi adierazten zuten.

Gaurkoan egin behar izan dituzten jarduerak normalean egiten dituzten jarduerak baino esfortzu handiagoa suposatu diete ikasleei. [...] Neska asko aitzakiak jartzen saiatu dira jarduera egin aurretik, hala nola; lokarriak askatu eta berriz lotzen, mototsa egiten, etab. Gainera, hainbat kasutan, neska talde batek jarduera egin nahi ez duela adierazi du (landa oharrak, 2019-11-12).

Askotan, neskek heziketa fisikoko jardueretan parte hartu nahi ez izatea heziketa fisikoko saioak gustuko ez izatearekin lotu izan da, eta hori, nesken erabakia dela eta beraien gustuen araberako hautua dela uste izan da, eta horren aurka ezer ere egin behar ez dela (Vilanova eta Soler, 2012). Beraz, neska askoren gorputz hezkuntzarekiko jarrera pasiboa erresistentziatzat hartu daiteke, izan ere, neska askok heziketa fisikoko saioetan interesik ez izateak ez du esan nahi ez dutenik jarduera fisikokoaren interesik; baizik eta heziketa fisikoko saioetan ez direla eroso sentitzen, eta horrenbestez, gustura sentitzen ez diren eremuak alboratzen dituztela (Soler, 2009). Gainera, askotan, jardun nahi ez izate horren errua neskei egotzen zaie, eta ez da kontuan hartzen benetan nolakoa den gorputz hezkuntza eta zergatik neska askok ez duten bertan parte hartu nahi (Vilanova eta Soler, 2012).

Haatik, lehenengo urratsa norbanako bakoitza egoera eta errealitateaz jabetzea da, ondoren aldaketak egin ahal izateko, eta horretarako, ezkutuko curriculumaren inguruan hausnartu beharko litzateke, horrek dakartzan oztopo eta diskriminazioak azaleratuz eta eztabaidatuz, gorputz hezkuntzako arazoaren oinarria non dagoen identifikatzeko (Vilanova eta Soler, 2012).

Bestetik, gaitasun ezberdinak garatzeko jarduera mota ezberdinak egiten ziren saioetan, adibidez, koordinazioa lantzeko musikaz baliatzen ziren, edota taldekatze zein material ezberdina erabiliz, besteak beste: "Bai, koordinazioa lantzeko adibidez musikarekin egiten dugu, objektuekin, objekturik gabe, banaka eta taldeka lantzen dugu" (2. Irakaslea).

Izan ere, gorputz hezkuntzako saioetan jarduera ezberdinak sustatu behar lirateke, trebetasun eta gaitasun ezberdinak garatzeko, soilik horrela aurkituko bailituzkete ikasleek trebetasunak dituzten jarduerak eta horiek egiten disfrutatzeo aukera (Vilanova eta Soler, 2012). Gainera, ikasle bakoitzak autoestimua hobetu eta beraien burua eroso eta seguru sentituko duten jarduerak ezagutuko lituzke (Vilanova eta Soler, 2012).

Gaitasun fisiko ezberdinen garapena ikasleek dinamizatutako saioen bidez burutu ziren, hau da, ikasleek taldeka egindako lanak kideei aurkezten zizkieten: “Egoera fisikoa garatzen dugu. Egun dugun azken moldaketan ikasleei eskatzen diegu saioak diseinatzea aspektu konkretuak (indarra, erresistentzia, abiadura, malgutasuna) garatzeko” (1. Irakaslea).

Horrez gain, gaitasun motor berriak garatzeko material edota arauen moldaketaz baliatzen ziren. Adibidez, joko ezagun bat hartu eta beharrezkoa material eta arau aldaketak eginez: “Batzuetan bai. Ezaguna den joku bat hartuta eta moldaketak egiten material edota arauetatik” (1. Irakaslea).

Ebaluazioari dagokionez, jarduera bakoitzaren zailtasun mailaz ohartuta norbanako bakoitza bere trebetasun mailaren arabera ebaluatzen zen. Lehen, sexu eta adinez bereizitako baremo baten bitartez ebaluatzen ziren ikasleak, baina gaur gaurkoz ez da horrela egiten. Gero eta garrantzia handiagoa ematen zaie trebetasunei, parte hartzeari, inplikazioari eta prozesuari.

“Lehen baremo baten bidez (sexuz eta adinez) egiten genuen eta hori kendu dugu. Orain saioaren diseinutik ebaluatzen ditugu” (1. Irakaslea).

“Gero eta garrantzia txikiagoa ematen diegu trebetasunei, gure joera parte hartze, inplikazio eta prozesuari garrantzia ematea da” (2. Irakaslea).

Horretarako, helburuak pixkana ezartzea garrantzitsua da, zailtasun mailak egokituz, pertsona bakoitza bere trebetasunen eta jarduera egitean jartzen duen gogoaren arabera ebaluatuz, betiere, parekidetasuna eta norbanako bakoitzaren zailtasunak kontuan hartuta (Vilanova eta Soler, 2012).

Beraz, gorputz hezkuntzako saioetan egiten diren kirol lehiakorrez haratago, parte hartzaileen trebetasuna eta ikaste nahia hartu behar da kontuan, eta bi aspektu horiek ebaluatzeo modu alternatiboak sortu behar dira (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019). Irakasleek rol garrantzitsua dute hezkidetzaren garapenean, pedagogia kritikoa eginez eta

erresistentzia sortzen duten jarduerak egiteko bide alternatiboak aurkituz (Monforte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Bestetik, karga sexistak zituzten jarduerak saihesten zituzten, eta kutsu hori zuten jarduerak burutzean kutsuaz beraz ohartzen ez zirelako egiten zituzten.

G: Karga sexistak dituzten jarduerak saihesten saiatzen al zara?

“Baietz esango nuke, baina akatsa egiten dudanean konturatzen ez naizelako da” (2. Irakaslea).

Irakasle askok eredu hegemoniko maskulinoa jarraitzen dute, eta nahiz eta askok aldaketarako nahia izan, erresistentzia sortzen duten erabakiak hartzen dituzte, erresistentzia burutzen duen ezkutuko patro hori jarraitzen baitute (Soler, 2009). Gainera, beraien heziketan jasotako ideal eta sinesmen horiek oso zailak dira hautsi eta deseraikitzen (Soler, 2009).

Bestalde, saioetan, rolak finkatuta zituzten jardueren inguruko hausnarketa gutxitan egiten zen, eta rol horiek ez ziren apurtzen, baina zenbait kasutan ikasle guztiak rol guztietatik pasatzen saiatzen ziren irakasleak: “Rol ezberdinak behartzen dituzten egoeretan, guztiak rol guztietatik pasatzen behartzen ditugu” (1. Irakaslea).

Hala, rolak guztiz definituta dituzten jarduera edota genero-esleipenak dituzten jarduerak egin nahi badira, jarduera horiek jarduera osagarrien bidez egitea gomendatzen da, jarduera horien rol edota estereotipoak gogora ekarriz eta horiei buruzko hausnarketa, kritika eta suntsipena eginez, ikasle zein irakasle bakoitzaren gaitasun kritikoa garatu eta errealitateaz ohartzeko, etorkizunera begira kritikotasun hori garatuz jarduera estereotipatuak ekiditeko (Vilanova eta Soler, 2012).

5.2.5. JOLAS LIBREA

Gorputz hezkuntzako saioetan irakasleak denbora libre zela adieraztean, mutil eta neskek jarduera ezberdinak aukeratzen zituzten, espazioaren erabilera ezberdinarekin. Hainbat kasutan batera jolasten zuten, saskibaloian adibidez, baina ez zen ohikoena. Neskez osatutako talde txiki batek nahiago izaten zuen denbora libre hitz egiten igaro jolasten baino, eta jarduera egiterakoan, nahiago zuten albo batean kooperaziozko jarduerak egin.

“Hainbat kasutan batera jolasten dute, hala nola, saskibaloiarekin zer ikusia duten jardueretan. Hala ere, batzuetan neska talde txiki bat egoten da (5-6 ikasle) eserita egotea nahiago dutenak

eta mugitzera animatzen dituzunean kontakturik gabeko jarduera egitea erabakitzen dute eta albo batean” (2. Irakaslea).

Oso zabalduta dago espazioaren banaketa hori era natural batean egiten dela, neskek jolas libreko jarduerak espazioaren izkina batean egin nahi dituztela eta mutilek espazio handiagoa behar dutela euren ekintzetan jarduteko, baina baieztapen horietan ez da kontuan hartzen gertaera horiek mutilek neskekiko duten nagusitasunaren isla direla (Vilanova eta Soler, 2012). Gertaera horiek jokoaren barnean zein bizitza errealean ematen diren erlazioengatik gerta daitezke, eta erlazio horiek estereotipoen baitan sor daitezke (Soler, 2009).

5.3. IRAKASLEGOAREN KOMUNIKATZEKO ERA

Irakasleek haurrekin duten komunikatzeko moduak garrantzia handia du hezkidetzaren sustatzeko garaian, ikasleenganako interakzioan eragin handia baitu eta hezkidetzailleak ez diren jardunak egiten baditu, ikasleak hala jokatu baitu (Vilanova eta Soler, 2012).

Mutilenganako eta neskeenganako arreta berdintsua izan zuten gorputz hezkuntzako irakasleek, parekoa (galderak egiterako orduan, feedbackak, zuzenketak, etab.).

Irakasleak saioaren inguruko azalpena ematerako orduan argi eta garbi ikusi da neskeenganako eta mutilenganako arreta berdintsua izan dela. Izan ere, galderak egin dizkie bai neska eta baita mutilei ere. Gainera, adibideak ematerako orduan neskek jarri ditu adibidetzat (landa oharrak, 2020-02-25).

Gaurkoan irakasleak jardueraren azalpenean irabazi eta galtzaile bat adierazterako orduan, neska bat irabazletzat hartu du, eta mutila, galtzailatzat (landa oharrak, 2020-12-10).

Interbentziarako ordenak ezartzea eta etenaldiak saihestea noizbehinka egiten zuten, ikasle neska zein mutilek parte hartzen zutela ziurtatzeko. Ildo horretan, Vilanova eta Solerren ustetan (2012) neska zein mutilei esku hartzeko baliabide eta aginduak emateak zein etenaldiak saihestek hezkidetzaren garapenean laguntzen du, denek modu ordenatuan hitz egiteko aukera izan dezaten, horretarako norbanako bakoitzari leku eta behar duen denbora eskainiz.

Bestalde, irakasleek, ahots tonu goxo eta adeitsua erabiltzen zuten ikasleekin komunikatzerako orduan, presio egoerak ahalik eta gehien saihestuz: “Irakasleak azalpenak

ematerakoan ahalik eta tonurik egokienarekin jarduten saiatu da” (landa oharrak, 2020-02-25).

Hala ere, zenbait kasutan irakasleek partidak edota lehiakorragoak ziren jardueretan mutilekin soilik jardun zuten.

Gaurkoan esku pilotako saioa izan dugu. Hala, saioarekin amaieran irakasleak partidua egiteko aukera eman die ikasleei eta ikasleak neskak nesken aurka zein mutilak mutilen aurka jardun dute, talde mistorik osatu gabe. Hala, irakasleak mutilekin jardun du partida egin beharreko denbora osoan zehar (landa oharrak, 2019-12-18).

Horrelako jarrerak ere, nolabait, nesken parte hartzeko motibazio eta jarreran eragina izan dezakete, eta beraz, irakasleek ikasleekin jokatzeko erak garrantzi handia du (Vilanova eta Soler, 2012; Soler, 2009).

6. ONDORIOAK

Lan honen helburua hezkuntzan hezkidetzaren sustatzeko ildoak aztertzea izan da, errealitatea aztertuz bertako gabezia eta oztopoak hautematea, ondoren proposamen hezkidetzailerik bat garatzeko, eta erabilitako baliabideek lanaren helburua betetzeko beharrezko informazioa ahalbidetu dute. Izan ere, behaketa parte hartzailearen eta elkarrizketa erdi-egituratuaren bidez errealitate sozialeko oztopoak aztertzearen aukera ahalbidetu da, ondoren zenbait autoreren praktika onen teoriarik oinarrituta hezkidetzailerik izango den proposamenik bat garatzearekin batera. Lanaren honako ondorioak atera dira:

- Gaur egungo errealitatean gorputz hezkuntzako saioetan hezkidetzaren beharra nabaria da, hutsune handiak baititu.
- Irakasleek hezkidetzaren sustatzeko teoria jakin badakitela adierazten duten arren, praktikan jartzerako orduan arazoak dituzte, eta hezkidetzaren garrantzitsua dela adierazten duten arren, zenbaitetan, hezkidetzaren gabeziez ez dira ohartzen. Hori, ezkutuko curriculumaren bidez ematen da, curriculumak jada oztoporik ez dagoela adierazten baitu. Horrenbestez, irakasleek hezkidetzaren garapenean rol garrantzitsua jorratzen dute eta etorkizunera begira lan handia egin beharra dago.
- Heziketa fisikoko saioetan mutilek neskekiko duten autoritate eta gailentzea nabaria da, eta gehienetan, mutilek neskek baino gusturago jarduten dute. Izan ere, kirolak maskulinizazio prozesu bat irudikatzen du, eta beraz, menderatze maskulinoak bermatzen duen sisteman bizi garenez, nesken jarduna gutxietsita dago. Gainera, curriculumean, kulturalki maskulinoak diren gaitasun motorrek goi posizioa hartzen dutenez, heziketa fisikoa ez dago neskei egokituia. Hala, heziketa fisikoan jarduteko era aldatu beharrez, heziketa fisikoa ez gustatzearen errua neskei egozten zaie. Horrenbestez, ezberdintasun horiekin amaitzeko, edozein planteamenduk hezkidetzailerik izan behar du.
- Genero estereotipoek izugarriko eragin soziala dute, eta horren bidez ematen dira gizonezkoak gailentzen diren hierarkizazioan hainbat erlazio dominante. Jarduera fisiko eta kirolaren esparruan ere, botere-harreman horiek erreproduzitu egiten dira. Beraz, genero estereotipoen suntsipena beharrezkoa da. Hori horrela, hezkuntza esparruan harremanak garatu eta norberaren izaeraren eraikuntzan eragina duen esparrua izanik, hezkidetzaren oinarritutako hezkuntzak, aldaketa sozialak eragin ditzake, genero hierarkiaren eta beraz, generoari loturiko estereotipoekin amaitzeko bidea izan baitaiteke.

Lana modu jarraituan egin bada ere, Covid-19aren hedapenarengatik datuak jasotzeko erdi-egituratutako elkarrizketak modu presentzialean egiteko aukera ezeztatu zen, eta horrek, metodologia aldatu beharra ekarri zuen, elkarrizketak e-postaz bidali eta beteta itzuliz egin behar izan baitziren. Horrekin batera, behaketa parte hartzailea ere eten egin zen, hedapenaren ondorioz ezin izan baitzen saioetara gehiago joan. Dena dela, egokitzearen eta berrantolaketa modu ordenatua eta arazo handirik gabe egin ziren, eta lana betetzeko beharrezkoa informazioa jaso zen.

Bestetik, ikasitakoaren erabilgarritasunaren, haren mugen eta lorpenen artean balantze bat egitekotan, lorpenak guztiz errealak izan dira, eta beraz, ikasitakoaren erabilgarritasuna bizitza errealean aplikagarria da, suposizioetan erori gabe. Izan ere, hautaturiko metodologiak ikasleen bizipenak bertatik bertara ikertzeko aukera eman du, eta beraz, bizipen zein horietatik eskuratuko emaitzak guztiz errealak izan dira. Gainera, irakasleei eginitako elkarrizketek beraien jardunari eta horrenbestez gaur egungo errealitateari buruzko informazio esanguratsua ahalbidetu dute, elkarrizketatuak ikerturiko esparruan lanean dihardutenak izan baitira. Beraz, ikerketa honetan adierazitako emaitzak guztiz errealak izan dira, eta errealitate horretan oinarrituriko proposamena luzatu denez, proposamen hori etorkizunerako baliagarria da.

Bestalde, etorkizunera begira ikerketa zabal eta testuinguru ezberdinak barnebiltzen dituen egitea aukera bikaina litzateke, lagin ezberdinak ikertuz emaitza ezberdinak bildu eta horien analisia eginez giza existentziaren interpretazio zabalago bat egiteko. Esaterako, ikerketa ikastetxe ezberdinetan eginez, ikastetxe ezberdinetan taldekatze eredu ezberdinak probatuz, ikastetxe ezberdinetan saio hezkidetzailleak egin eta beraien arteko aldea ikertuz, besteak beste.

Azkenik, ikerketa garatu ahala ikusi denez, hezkidetzak sustatzeko garaian arazo nagusienetarikoa bat irakaslearen jarduna dela adierazten den arren, azpimarragarria da irakasle horien jardunak lotura handia duela genero ikuspegia kontuan hartzen ez den hezkuntza sistemarekin, bertan hezkidetzak ez baitu garrantzirik. Hala, menderatze maskulinoa naturalizat hartzen da.

Haatik, interesgarria litzateke etorkizuneko proposamen modura hezkuntza sistemaren eta horren sortzaileen oinarriak eta nahiak ikertzea, bertan gailentzen den ezkutuko curriculumarekin batera, horien mesedetara sortua baita.

Horrez gain, gaur egungo errealitateko hezkuntza sistema eredu andoentrikoa jarraitzen duen eta genero ikuspegia kontuan hartzen ez duen sistema dela ikusita, baliagarria

litzateke graduiko ikasketa planean genero ikuspegia oinarri hartuta hezkuntza sisteman hezkidetzak nola sustatu irakatsiko duen irakasgaia sortzea, etorkizuneko profesionalek heziketa fisikoko saioetan hezkidetzak dituen oztopoez jabetzeko eta horiek ebatzi zein hezkidetzak sustatzeko nahiko formakuntza eta baliabide izateko.

7. APLIKAZIO PRAKTIKOA

Adierazitakoa aintzat hartuta, komenigarria da gorputz hezkuntzako saioetan hezkidetzak sustatzeko aplikazio praktikoa egitea, arloko profesionalen gaitasunak ikusarazten lagun diezakeena. Horrenbestez, Vilanova eta Solerren (2012) praktika onetan oinarrituta hezkidetzak sustatzeko hainbat irizpide ahalbidetzea garrantzitsua litzateke (ikus saio ereduak 3. eranskinean).

Heziketa fisikoko saioetan oraindik ere hezkidetzak behar handia duela ohartuta, eta irakasleek horren sustapenean izan dezaketen garrantzia azpimarratuta, irakaslearen roletik egin beharreko hainbat jardun hezkidetzazile proposatuko dira jarraian:

- Irakasle oro errealitatearen eta hezkidetzaren beharrez ohartzeko eta kontzientzia izateko baliabideak sustatzea.
- Taldeak osatzerako garaian ikasle ororen erositutasuna bermatzeko binakako taldekatze libreak ahalbidetzea, eta talde handiagoak egin nahi badira, bikote horietatik abiatuta egitea.
- Materialaren erabilera alternatiboa sustatzea. Ohikoak ez diren materialarekin jarduteko aukera ahalbidetzea ikasleei.
- Saioak eremu ezberdinetan egitea, ikastetxeko espazio guztiak ikuskatu eta erabilgarriak izan daitezkeenak aukeratzea, eta bertan ikasle guztiak eremu guztietatik igarotzeko irizpidea ezartzea. Ikastetxeko eremu zentralak jarduerak alternatiboak egiteko egokitzea.
- Jardueren diseinua egiterakoan genero-erabilerak dituzten jarduerak burutu aurretik rol eta estereotipoen inguruko hausnarketa egitea, irakaslea zein ikasle oro jardueraren munitz jabetzeko eta gaitasun kritikoa sustatzeko.
- Irakasleek komunikatzeko orduan neska zein mutilak hartzea eredutzat eta irabazletzat, norbanakoaren sexua dena delakoa izanda parekidetasunean tratatuz.
- Saio ororen amaieran ikasleen erlazio, erabilitako materialaren, espazioaren banaketaren eta taldekatzeen inguruko hausnarketak egitea. Irakasleek beraien errealitatearen hausnarketa kritikoa egiteko eta hezkidetzaren garapenean dauden oztopoez konturatzeko.

Horrenbestez, garrantzitsua da irakasleek beraien jardunaren inguruko ikuspuntu kritikoa sustatzea, errealitateko oztopoak identifikatuz beraien saioetako jarduerak ahalik eta hezkidetzazileena izateko.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alvariñas-Villaverde, M., eta Pazos-González, M. (2018). "Estereotipos de género en Educación Física, una revisión centrada en el alumnado". *Revista Electrónica de Investigación Educativa*, 20(4), 154-163.
<https://doi.org/10.24320/redie.2018.20.4.1840>
- Casal, J., eta Mateu, E. (2003). "Tipos de muestreo". *Epidem*, 1(1), 3-7.
- Devís, J., Fuentes, J., eta Sparkes, A. C. (2005). "¿Qué permanece oculto del currículum oculto? Las identidades de género y de sexualidad en la educación física". *Revista Iberoamericana de Educación*, 39, 73-90.
- Flick, U. (2007) *Introducción a la investigación cualitativa*. 2. argitalpena. Madril: Ediciones Morata.
- Hezkuntza Saila (2019). *EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Bilbo: UPV/EHU.
- Martín, M., Soler, S., eta Vilanova, A. (2017). Género y deporte. In M. García Ferrando, N. Puig, F. Lagardera, R. Llopis, eta A. Vilanova (koord.), *Sociología del deporte* (4. ed., 97-124). Madril: Alianza editorial.
- Monforte, J., eta Úbeda-Colomer, J. (2019). "‘Como una chica’: un estudio provocativo sobre estereotipos de género en educación física". *Retos*, 36, 74–79.
- Pita, S., eta Pértegas, S. (2002). "Investigación cuantitativa y cualitativa". *Investigación Educativa*, 9, 76-78.
- Ruiz Olabuenaga, J. I. (2012). *Metodología de la investigación cualitativa*. 5. Argitalpena. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Scruton, S., eta Flintoff, A. (2013). Gender, Feminist Theory, and Sport. In D.L. Andrews eta B. Carrington (ed.), *A Companion to Sport* (96-111). Malden, MA: Wiley Blackwell.

- Soler, S., eta Vilanova, A. (2012). “La coeducación en la educación física en el siglo XXI : reflexiones y acciones”. *Tándem : Didáctica de La Educación Física*, 40, 75–83.
- Soler, S. (2009). “Los procesos de reproducción, resistencia y cambio de las relaciones tradicionales de género en la educación física: El caso del fútbol”. *Cultura y Educacion*, 21(1), 31–42. <https://doi.org/10.1174/113564009787531253>
- Subirats , M. (2010). “¿Coeducación o escuela segregada? Un viejo y persistente debate”. *Revista de La Asociación de Sociología de La Educación (RASE)*, 3(1), 143–158. <https://doi.org/10.7203/RASE.3.1.8632>
- Valles, M. (1997). *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. España: Síntesis.
- Vázquez, B. (1996). Educación Física y coeducación. In V. García (koord.), *Personalización en la educación física* (321-336). España: Rialp.
- Vidiella, J., Herraiz, F., Hernández, F., eta Sancho, J. M. (2010). “Masculinidad hegemónica, deporte y actividad física”. *Movimento*, 16(4), 93-115.

9. ERANSKINAK

9.1. BAIMEN INFORMATUA

Proiekturako parte-hartzaileen baimen informatua:

Baimen agiri honen xedea ikerketa honetan parte hartuko duten pertsonen lanaren izaeraren inguruko azalpen argi eta zehatzak jasotzea da, bete duten rolaen inguruko argibideak ere emanaz. Aldez aurretik, mila esker zure parte hartzeagatik.

Ikerketa honen arduradun nagusiak Alaitz Egaña Pagoaga eta Uxue Fernandez Lasa dira, Euskal Herriko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Graduak ikasle eta irakaslea, hurrenez hurren.

Nik, _____-k, baimena ematen dut ikertzaileek burutzen ari diren ikerlana garatzeko ikerketarako datuak jasotzeko beharrezko informazio bilketak eta baliabideen erabilera egin ditzaten.

Aurrekoa betetze aldera honako hau jakinarazi zait.

- Parte hartzeko gonbidapena jaso nuela eta nire onespina (baimena) erabat borondatezkoa dela.
- Baimen informatu orri honen kopia jasoko dudala.
- Lan honen helburu nagusia gorputz hezkuntzan hezkidetzaren sustatzeko ildoaz aztertzea da. Gaur egungo errelitatearen hausnarketa bidez hezkidetzarekiko izango den programa bat garatzea, gaur gaurko hezkidetzaren bidean dauden oztopo eta premiez jabetuta.
- Ikerketa honetan zehar Datuen Babeserako Legeak zehazturiko SZEA eskubideak bermatuko direla:
 - Sarbide-eskubidea
 - Zuzentzeko eskubidea
 - Baliogabetzeko edo ezeztatzeko eskubidea
 - Aurka egiteko eskubidea
- Jasoriko informazioa eta ikerketako erantzunak konfidentzialak (sekretuek/isipelkoak) izango dira.
- Anonimotasuna mantenduko da. Zuen datu pertsonalak ez dira une batean ere erabiliko.
- Datuak ikerketa helburuetarako bakarrik erabiliko dira eta emaitzak Gradu Amaierako Lanean soilik adieraziko dira.

- Ez duzue diru saririk jasoko ikerketa lan honetan parte hartzeagatik. Ez duzue parte hartzeko ordainketarik egin beharko.
- Galdera edo zalantzaren bat badaukazue harremanetan jar zaitezkete ondorengo arduradunekin:

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Alaitz Egaña Pagoaga (alaitzze9@gmail.com)

Uxue Fernandez Lasa (uxue.fernandez@ehu.eus)

Irakaslearen izena eta sinadura

Informatzailearen izena eta sinadura

Lekua eta data: Elgoibarren, 2020ko martxoaren 27an

9.2. BEHAKETA PARTE HARTZAILEA/LANDA PRAKTIKAK

LANDA PRAKTIKAK

Gaur egungo errealitatea sakonki aztertzeke, zehazki, gaur egungo errealitatean hezkidetzak hartzen duen papera ebaluatzeke, guztiz aproposa da errealitate hau osatzen duten banakoen jarrerak aztertu eta ondorioak ateratzea. Horretarako, jarraian Olabide Ikastolako (Gasteiz) hurrek gorputz hezkuntzako saioetan izaten dituzten jarreraren inguruko landa praktika bat egingo dut, jarrera hauek ebaluatu eta ondorio batzuetara heltzeko. DBH 4.mailako ikasleei eginiko behaketa lana da hau, hots, 15-16 urtekoei. Talde hau 30 pertsonen osatzen dute. Bestalde, errealitatearen azterketa hau behaketa parte-hartzailean oinarritzen da. Beraz, hona hemen gorputz hezkuntzako saioetan jasotako datu, jarrera edota portaera esanguratsuenak:

SAIOEN ANTOLAKETA

TALDEEN OSAKETA

2019-10-30

Gaurkoan talde mistoak osatu dituzte. Taldeak irakasleak egin ditu, zenbakiz. Hau da, norbanako bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio eta zenbaki berdineko kideek talde bat osatu dute. Hala, irakasleak taldekatzeko dinamika hori erabiliz egingo dituela adieraztean, neska gehienak lekuz aldatzen saiatu dira, beraien lagun minarekin jartzeko eta ez edozeinekin. Bestalde, beste jarduera batean bikoteak egiteko eskatu die irakasleak eta neskak neskekin zein mutilak mutilekin jarri dira, talde mistorik osatu gabe.

2019-11-13

10 paseen jolasean aritu dira. Mutilek kostata pasa diete baloia neskei. Hala egin dutenean eta nesken batek baloia izanda akatsen bat egin duenean, izugarrizko aurpegi eta hitz zatarrak entzun behar izan ditu. Jarraian, beste mutil batek baloia neska bati pasatzeko keinua egin eta pasatu beharrean barrez lehertu da eta erdiko hatzaparra atera dio, neska barregarri utziz.

2019-11-20

Neska zein mutilek banatuta jardun dute; neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Gainera, irakasleak hauen elkartzea bideratzean, kexak egon dira non nahi. Neskek ez dute mutilekin jolastu nahi izan, ezta alderantziz ere.

2020-02-05

Gaurko saioan baloiarekin jardun dute, eta mutil batek neska bati baloia pasatu dionean beste mutil bat atzetik etorri eta neska horri baloia kentzen saiatu da, neskak jardun horretan egingo lukeen ekarpena mutilarenaren azpitik egongo balitz moduan. Gainera, neska haserretu egin da eta ea baloia zergatik kendu dion galdetzean mutila barrez lehertu da.

2020-02-25

Talde misto bat mutil askoz zein neska batez osatuta egon da, eta neska horrek bere taldekide guztiak mutilak izanda eta bera neska bakarra izanda jardueran parte hartu nahi ez duela adierazi du.

2019-12-11

Gaurkoan esku pilotako jarduera bat egin dute eta irakasleak azalpena eman orduko mutilak espaziorik onena hartzera joan dira.

Gertatutakoaren ondorioz, ikasleek irakaslearekin espazioaren banaketari buruzko hausnarketa egin dute, irakasleak mutilei beti espaziorik onena zergatik hartzen duten galdetuz. Mutilek kasualitate hutsa dela adierazi dute, nahita egin ez balute moduan. Gainera, mutilen erantzunetarikoa bat neskek eremu horretan jardun nahi ez dutela izan da.

2019-12-18

Gaurkoan neskek eremurik eroso eta onena hartu dute jarduera egiteko, eta mutilek ez diete espazio horretan jarduten utzi. Gainera, eremua indarrez hartzen saiatu dira eta neskak gogaitzen, bertatik joan eta mutilek eremurik onena hartzeko: baloia nesken eremura botatzen, nesken eremura sartu eta bertan jarduten, etab.

2020-01-29

Ikasleak saioaren azalpena ematerako orduan lurrean edota kiroldegian dauden aulkietan eseri dira, ia egunero bezala. Neskak, alde batean jarri dira, eta mutilak bestean. Ez dira tartekatuta jarri, ia inoiz ez dira tartekatzen.

JARRERAK

2019-10-30

Saio osoan zehar, aurreko egunean moduan, mutilek izan dute protagonismoa. Momentu batez begiak itxi ditut eta momentu horretan soilik mutilen ahotsa entzun dut, eta gainera, dena gazteleraz.

2019-11-06

Gaurkoan saioa irakasleak dinamizatu beharrean hiru ikasle neskek dinamizatu dute (hala jarduten baitute gaitasun ezberdinen lanketa egiteko). Hala, saioa amaitu eta neskak momentu oro jarduerak eta ekintzak antolatu eta egiterako orduan hobeto egin zezaketela eta gehiago prestatu behar zutela adierazi dute. Hau da, eginikoarekin ez zeudela gustora. Honako hau izan da zehazki hobeto egin beharra adierazteko erabili duten esaldia: “Chicas, lo teníamos que haber preparado mejor”. Irakasleak ongi egin dutela eta lasai egoteko adierazi die, baina hiru neskak ez dira gustora gelditu.

2019-11-12

Gaurkoan, aurreko egunean ez bezala, hiru mutilek dinamizatu dute saioa, eta beraz, beraiek hartu dute “irakasle” papera. Hala, klaseko gainontzeko ia mutil guztiek saio osoa dinamizatzaileri zirikatzten eta beraien lana gutxiesten igaro dute. Momentu oro barregarri uzten saiatu dira, saioa antolatzen egon direnei akatsak ateratzen, eta beraien dinamika apurtzen. Gainera, mutil askok dinamizazaleak ebidentzian lagatzen saiatu dira, “tu no has hecho nada, lo han hecho las demás” moduko esaldiak erabiliz, irakasleak entzun eta errieta egiteko. Bestalde, irakaslea begira egon ez den momentuetan mutil askok beraien kideen baloia hartu eta pikutara botatzen aritu dira, egin beharreko jarduera egin beharrean.

Gaurkoan egin behar izan dituzten jarduerak normalean egiten dituzten jarduerak baino esfortzu handiagoa suposatu die ikasleei. Izan ere, erresistentzia aerobikoa landu dute

eta denbora asko pasatu behar izan dute korrika. Hala, neska asko aitzakiak jartzen saiatu dira jarduera egin aurretik, hala nola; lokarriak askatu eta berriz lotzen, mototsa egiten, etab. Gainera, hainbat kasutan, neska talde batek jarduera egin nahi ez duela adierazi du.

2020-02-05

Gaurkoan patinen gainean saskibaloian aritu dira ikasleak. Hala, irakasleak saskietatik ezin direla zintzilikatu adierazi dienean horiek orduan eta gehiagotan zintzilikatu dira. Hau da, irakasleak jardueraren arauak azaldu eta egin daitekeena eta ezin daitekeena egin adierazi dienean ikasleei, mutilek debekatutakoa egiten jarri dute beraien gogo guztia. Gainera, gainontzeko klase kideek barre egin dute momentu oro, eta horrek irakaslearen haserrea handitu du.

2020-02-19

Irakaslea saioko azalpenak ematen egon denean ikasle mutil askok azalpen hori moztu eta saioaren dinamika mozten saiatu dira. Gainera, beraien hitz egin dut eta beraien jarrerari buruz galdetu diedanean irakasleak denbora gehiegi pasatzen duela azalpenak ematen eta oso astuna dela adierazi didate.

JARDUERA LEHIAKORRAK

2019-12-18

Gaurkoan eginiko saioa eta bertako jarduerak lehiakorrak izan dira eta nabaria izan da mutilek garrantzi handiagoa eman dietela jarduerari. Gainera, mutilek irabazteko nahiarekin ahal izan dutena baino gehiago ematen saiatu dira.

Neskek, aldiz, jarduera lehiakor horiek jolas modura hartu dituzte. Gainera, horietako neska bat jarduera bateko irabazle izan da eta hori pozez ospatu beharrean, lotsatuta isilik geratu da.

JARDUERA EZ LEHIAKORRAK

2019-10-30

Gaurkoan, lehiakortasunik gabeko jarduerak egin dituzte. Horiek erreakzio abiadura lantzeko jarduerak izan dira eta saioaren dinamizazioa klaseko hiru kidek eramaten dute.

Hala, jolas horiek ez dituzte batere serio hartu mutilek, eta nahita gaizki egiten saiatu dira. Gainontzeko klase kideek barre egin diete eta klase osoaren atentzioa deitu dute.

Saioan zehar klaseko neska batzuekin hitz egin dut eta lehiakortasunik gabeko jardueretan gustura jarduten dutela adierazi didate, eroso sentitzen direla eta mota horietako jarduerak direla beraien gustukoena.

2020-01-28

Patinajeko saioa izan da gaurkoa, lehiakortasunik gabeko jarduerak egin dituzte. Hala, neska askok oso gustura aritu direla adierazi dute, jarduera ongi menperatzen dutela eta gainera lagunekin eta gustuko jarduera egiten oso eroso sentitu direla, saioan zehar asko gozatuz.

2020-02-18

Lehiakortasunik gabeko jarduerak egin dituzte gaurkoan, hau da, jarduera kooperatiboak. Itsuen jolasean aritu dira eta binaka (batek begiak estalita) hainbat lekutara joan behar izan dira, ondoren begiak itxita zituenak leku horiek asmatzeko asmoz. Hala ere, mutil asko jarduera kooperatibo hori ariketa lehiakor egiten saiatu dira, beraien gogoen %100a horretan jarriz. Albokoari enbarazu egiten eta bidetik aurkitzen zuten guztia beste bikoteen bidean jartzen, horiek beranduago heltzeko, lehengo iristen zenak irabaziko balu moduan.

JOLAS LIBREA

2019-11-05

Irakasleak jolas librea egiten utzi die ikasleei. Izan ere, gaurko saioa hiru ikasle mutilek dinamizatu behar zuten baina horietariko bat medikuarenera joan behar izan da eta beste bi kideek saioa ez dinamizatzea erabaki dute. Neskek futboleko jokatu dute eta mutilek aldiz, saskibaloian. Neskak nesken artean jardun dute saio osoan zehar eta berdina aritu dira mutilak.

Neska talde bat kiroldegiko izkina batean aritu da jolasean. Mutilek kontaktuzko jarduerak egin dituzte uneoro, neskek zeuden eremura sartzea batere axola gabe. Bestalde, neskek kooperaziozko ariketak egin dituzte, esaterako, paseak.

GOZAMENA

2019-11-12

Mutilek neskek baino gehiago gozatu dutela eta hobeto pasatu dutela nabaria izan da. Neskak gorputz hezkuntzako saioa beraientzat ez dela eta ikasgaia derrigorrezkoa zergatik den galdetu didate, bertan ezer egiten ez dutela eta ez direla gustura sentitzen adieraziz. Bestalde, mutilek ez dute horrelako baieztapenik egin. Gainera, argi eta garbi ikusi dut mutilek hainbat jolas egiten asko disfrutatu dutela.

2020-02-25

Gaurkoan boleibolea jardungo dutela adierazi die irakasleak ikasleei. Hala, mutilak asko poztu egin dira, kirol hori asko gustatzen zaiela adieraziz. Neska asko, aldiz, ez dira batere poztu, eta nahiago dutela gorputz hezkuntzako edozein jardura egin baino eserita egon lagunekin hitz egiten adierazi dute. Ezberdintasun handia egon da neska eta mutilen jarreretan.

IRAKASLEGOAREN KOMUNIKATZEKO ERA

2019-12-10

Gaurkoan irakasleak jardueraren azalpenean irabazi eta galtzaile bat adierazterako orduan, neska bat irabazletzat hartu du, eta mutila, galtzailatzat.

2019-12-18

Gaurkoan esku pilotako saioa izan dugu. Hala, saioaren amaieran irakasleak partidua egiteko aukera eman die ikasleei eta ikasleak neskek nesken aurka zein mutilak mutilen aurka jardun dute, talde mistorik osatu gabe. Hala, irakasleak mutilekin jardun du partida egin beharreko denbora osoan zehar.

2020-02-04

Neskei eta mutilei berdin komunikatzen zaizkie jarduerak eta egin beharrekoak eta argi ikusi dudanez, neskenaganako eta mutilenganako arreta berdintsua izan da.

Neska batek ariketa egin nahi ez duela adierazi du, eta irakasleak ariketa egitera bultzatu du neska. Neskak, jardun nahi ez duela esan du, ariketa ez duela egingo, eta irakasleak berak ikusteko esan dio, baina nota esfortzuaren arabera joango dela.

2020-02-25

Irakasleak saioaren inguruko azalpena ematerako orduan argi eta garbi ikusi da neskenaganako eta mutilenganako arreta berdintsua izan dela. Izan ere, galderak egin dizkie bai neska eta baita mutilei ere. Gainera, adibideak ematerako orduan neskak jarri ditu adibidetzat.

Irakasleak azalpenak ematerakoan ahalik eta tonurik egokienarekin jarduten saiatu da, pazientzia galdu gabe, baina ia saio gehienetan bezala pazientziarik gabe eta errieta egiten amaitu du, betikoekin eta bere buruarekin haserre. Gainera, askotan nola jokatu ez dakiela adierazi dit, modu guztietan saiatu dela arazoa konpontzen baina ez duela lortzen eta ikasleek nahi dutena egiten dutela berari jaramonik egin gabe.

ZENTROARI ERREFERENTZIA EGINEZ

Kirol instalazioetako eremu zentralak (ikastetxeak) ez daude jarduera alternatiboak egiteko egokituta. Izan ere, bi eremu zentral nagusi bereiz ditzakegu Olabide Ikastolan eta horietako bat saskibaloiak jokatzeko prestatua dago eta bestea, aldiz, futboleant (gehienetan futboleant aritzen dira) edota eskubaloian jokatzeko.

Bestalde, eremu zentralak jarduera nagusienekin lotuta dauden arren, esan beharra dago Olabide Ikastetxean beste mota batzuetako jarduera fisikoak gauzatzeko egokitua dagoela. Izan ere, besteak beste barruko pistina, pilotalekuak, tatamia, frontoia daude.

Gainera zentroak hainbat hitzaldi entzuteko aukera ahalbidetzen du, esaterako, Araski Arabako Emakumeen Saskibaloia Elkartekoek emandako hitzaldia. Hitzaldia emakume kirolariek eman zuten eta emakumezkoak ziren ikasleei bideratua izan zen gehienbat.

Horrez gain, "Five days To Dande" izeneko ekitaldia ere antolatu zuten. DBH 3. Mailako ikasleek hartu zuten parte bertan eta bost egunez ohiko plangintza eten zen ordu horietan dantza, interpretazioa eta gorputz adierazpena lantzeko. Beraz, kategoria

femeninoko jarduerak plazaratu zituzten. Horrelako ekintzek kultura femeninoko jarduera gailentzen dituzte.

Azkenik, zentroak gorputz hezkuntzarekin loturiko ikastaro edota gerturatze saioak antolatu ditu; parkourreko gerturatze saioak eta eskaladako gerturatze saioak. Ikastaro horietan, ikasleek gorputz hezkuntzako ohiko saioekin jarraitu beharrean ikastaroa kanpotik etorri den norbanakoarekin jardun dute. Horrek, ateak irekitzen dizkie ikasleek jarduera ezberdinak probatzeko eta beraien burua ezagutzeko.

BITXIKERIA

Bitxikeria bat azaltze aldera, neska gehienek ez dute mototsa egiten, eta gehienek, ile luzea dute. Beraien erosotasunaren aurretik itxura mantentzen saiatzen dira uneoro. Izan ere, jarduerak egiten ari direnean, momentu oro eskuarekin ilea atzera eramaten dute, eroso egongo ez balira moduan.

9.3. IRAKASLEEI EGINIKO ELKARRIZKETAK

9.3.1. LEHENENGO IRAKASLEARI EGINIKO ELKARRIZKETA

GORPUTZ HEZKUNTZAKO SAIOEI BURUZKO GALDERAK

Gaur egungo errealitateari erreparatzen badiogu, hainbat dira haurren heziketan hezkidetzak hartzen duen papera. Ikastetxe bakoitzean hezkidetzak modu ezberdin batean jorratzen da, eta hezkidetzaren aldeko apustua bide ezberdinetatik bermatzen da. Bertan, irakasleek duten papera ukaezina da, eta beraz, irakasle bakoitzak hezkidetzaren garapenean jartzen duen alea guztiz ezberdina da.

Hori horrela, oraingo honetan Olabide Ikastolako gorputz hezkuntzako bi irakasle hezkuntza esparruan (ikasleekin interakzioan) hartzen dituzten erabaki eta ahaleginei buruzko galderak proposatu ditut. Betiere, galderak erantzuteko edota hala ez egiteko aukerarekin eta norbanako bakoitzak erabakiz zer eta nola erantzun nahi duen. Galdera hauek ez dira, inolaz ere, irakaslea juzgatu eta ikertzeko, baizik eta gaur egungo errealitatearen hausnarketa bat egiteko. Beraz, nahi duzuen erantzun dezakezue, nahi duzuen eran, libreki.

HURBILKETA GALDERA OROKORRAK

- Gorputz hezkuntzako saioetan hezkidetzak lantzea garrantzitsua iruditzen al zaizu? BAI.
 - o Zergatik? Gizartean aldarrikatzen eta borrokatzen dugun berdintasuna arlo guztietatik batera bultzatu beharko da eta nola ez gure ikasgaiatik.
- Saiatzen al zara zure saioak ahalik eta hezkidetzailenak izaten? Horretarako neurririk hartzen al duzu? Egia esanda programatzeko momentuan ez dut hezkidetzak hartzen irizpide garrantzitsu bezala, Ohartzen naiz programatutako arlo abtuz lagungarriak direla benetazko hezkidetzak lortzen laguntzeko eta beste batzuk aldiz ez.
- Gorputz hezkuntzako irakasle hainbat urtez izan zarenez, nabaritzen al duzu zure garapenean hezkidetzarekiko aurrerapausorik?
 - o Hala bada, gai izango zinake horietarikoren bat kontatzeko?Urteko eskarmentuak argi uzten dit zein jardueretan egon daitekeen egoneza genero bat edo bestearen aldetik.Hori kontuan izanda, urteekin gai batzuk ekiditu

ditugu (eskubaloia, futbola -neurri batean-,soinketa) eta batzuk indartu ditugu (patinaia, boleibola, badmintona, jarduera boluntarioak...)

- Gaur egun zein hutsune edota gabezia ikusten dituzu hezkidetzaren oztopatzen dutenak? Uste dut gai hau teoriarik menperatzen dutela baina ez gara heltzen bizipen erreal guztietan integratzera. Ez dira benetan murgiltzen bizipen erreal propio izan arte.
- Zure aburuz, zein neurri hartu beharko genituzke hezkidetzaren sustatzeko? Bi urteko geletatik, programatzeko irizpide nagusi bezala kontenplatu eta ikasgia guztietan presentzia izan.
- Saio teoriko zein praktikoetan hezkidetzaren inguruko hausnarketak egitea baliagarria dela iruditzen al zaizu? Baliagarria da, baina aurretik esan dudan moduan, askotan teoria bezala kontenplatu dute eta errealitatean ez dute aplikatzen.

SAIOAK ANTOLATZEKO FORMEI DAGOKIENEZ

TALDEEN OSAKETA

- Orokorki, gorputz hezkuntzako saioetan, nola egiten dituzu taldeak? Hau da, zein estrategia erabiltzen duzue taldekatzeak egiteko? Gai batzuetan kontuan hartzen dut neska eta mutilen kopuruak orekatzeko. Beste batzuetan aukeran uzten diet libreki eta egoera deserosoak ekar ditzake.
- Jardueretan taldeak egiterako orduan taldekatze librea erabiltzen al duzu? (Taldekatze librea: norbanako bakoitzak jarduera norekin landu nahi duen erabakitze eskubidea) Gehiengokoetan bai.
- Taldekatze mistoa egiterako orduan, progresiboki egiten al duzu? Hau da, lehendabizi taldekatze librea eta ondoren taldekatze mistoa. Taldekatze mistoak erabiltzen ditut batez ere eskatutako jardueraren denean ebaluagarria eta taldeka.
- Taldekatzea irakasleak egitean, ikasleak gustora eta eroso jarduten al dute? Oso ohituta daude horrela egiten eta normalean eskertzen dute ez dutelako beraiek posizionatu behar (hau batzuetan deserosoa da beraientzat).
- Ikasleak euren kabuz taldekatzean, nola taldekatzen dira?

- Talde mistoak egiten al dituzte? Ebaluatzeko diren taldeko lanetan mistoak egitea da irizpidea uste dudalako hezkidetzan lantzen duela.

ESPAZIOAREN ERABILERA

- Saioetan zein espazio erabiltzen dituzu?
Gaiaren arabera espazio ezberdinetan mugitzen dira gure ikasleak.
- Orokorki, nola kudeatzen duzue espazioaren erabilera?
Jardueraren arabera.
- Mutilek eta neskek espazio berbera erabiltzen al dute?
Bai.
- Denbora libre izaten duzuen kasuan, mutilek eta neskek espazio berbera erabiltzen al dute? Aukera libre dutenean jarduera ezberdinak hautatzen badituzte, espazioen erabilera ezberdina izan daiteke. Desoreka nabarmena gertatuz gero horretan parte hartzen dugu berdintzeko.
- Hala ez bada, nola izan ohi da espazioaren banaketa?
Batuetan gu ez bagara sartzen, mutilek joera dute espazio handiagoak eskatzen.
- Nork erabakitzen du espazioaren banaketa nolakoa izango den? Hau da, ikasleek sarri erabakitzen al dute non jardun, ala irakasleak finkatzen du espazioaren banaketa? Ea guztietan guk erabakitzen dugu.

MATERIALAREN ERABILERA

- Zein material erabiltzen duzu saioak aurrera eramateko? Aunitzak. Baloiz ezberdinak, sokak, uztaiak, pikak, konoak, oltxonetak, patinak, stidak, freesbeak,...
- Material estereotipatua erabiltzen al duzu? (Baloia futbolean aritzeko, sokasalto...etab).
Erabiltzen ditugun material guztiak guztiek erabiltzen dute berdin. Ez dugu material bat neskekin lantzeko edo mutilekin.

- Hala bada, oztopo izan ohi da taldekide guztiak (neska zein mutil) jardueran aritzeko? Hau da, materiala estereotipatua denean parte hartzerako orduan erresistentziarik jartzen al dute? Erresistentzia gutxi ditugu eta dauden gutxi horiek ez daude bateratuak genero batean. Gustuen arabera ikasle gutxi batzuk esaten dute zerbait ez zaiela gustatzen.
- Materiala modu ekitatiboan (justuan, zentzuzkoan) banatzen al duzu? Berritort diot hezkidetzaz ez dudala irizpide nagusi bat bezala jarraitzen baina gero gehiago ikusten dut materiala ez dagoela estereotipatua. Zorionez, gero eta atzerago geratzen ari da.
- Horrenbeste erabiltzen ez diren materialarekin jarduten al duzu? Hala modu batean tradizionalak diren materiala soilik erabiltzen duzue? Adibidez, stick-a, baloi handiak, frisbeea...etab.
Denetarik erabiltzen dugu.
- Ikasleekin materialaren eraketarako tarte hartzen al duzu? Hau da, ikasleei beraien materiala eraikitzeke espazio eta denbora eskaintzen al zaie? Esku pilotak jokatzeko pilotak egiten dituzte. Gainontzeko materialak erositakoak dira.
- Ikasleekin gauzatu al duzue hausnarketarik "maskulinoak" edota "femeninoak" kontsideratzen diren materialari dagokionez? Hausnarketa hori era programatu batean ez dut planteatu. Gelako egoerak noizbehin gaia azaleratu du.

JARDURUEREN DISEINUA ETA EBALUAZIOA

- Normalean saio praktikoetan zein motatako jarduerak egiten dituzu?
Aunitzak.
- Konpetiziozko zein konpetiziozkoak ez diren jarduerak egiten al dituzu?
Bai. Bi eratakoak. Konpetiziozkoak gutxienekoak.
- Hauei denbora tarte zein garrantzia berdina eskaintzen al zaie?
Aurrean esan dudaz bezala, gehiengokoak ez leihatzekeak dira.
- Gaitasun ezberdinak garatzeko jarduera mota ezberdinak egiten al dituzu?
Bai. Kontua da zein sailkapen motatik kontsideratu ditzakegu ezberdinak?
Indibidualak, taldekoak, koordinatiboak, egoera fisikoaren ikuspuntutik, barneko logikatik...?

- Gaitasun motor berriak garatzeko material edota arauen moldaketaz baliatzen al zarete? Adibidez, nolako arau egokitzapenak egiten dituzue?
Batuetan bai. Ezaguna den joku bat hartuta eta moldaketak egiten material edota arauetatik.
- Erritmoa, abiadura, indarra, malgutasuna...etab (gaitasun fisikoak eta hauen garapena) lantzen al dituzue non ikasle bakoitzak arrakasta aurki dezakeen hauetariko batean? Egoera fisikoa garatzen dugu. Egun dugun azken moldaketan ikasleei eskatzen diegu saioak diseinatzea aspektu konkretuak (indarra, erresistentzia, abiadura, malgutasuna) garatzeko.
- Jarduera bakoitzaren zailtasun mailaz ohartuta norbanako bakoitza bere trebetasun mailaren arabera ebaluatzen al duzu? Lehen baremo baten bidez (sexuz eta adinez) egiten genuen eta hori kendu dugu. Orain saioaren diseinutik ebaluatzeko ditugu.
- Karga sexistak dituzten jarduerak saihesten saiatzen al zara? Uste dut baietz.
- Edota rolak finkatuta dituzten jarduerak egiterako orduan, hauek apurtzen eta ikasle denek rol ezberdinak probatzen saiatzen al zara? Rol ezberdinak behartzen dituzten egoeretan, guztiak rol guztietatik pasatzen beharzen ditugu.
- Rol ezberdinen inguruko hausnarketak egiten al dituzue? Gutxitan.

IRAKASLEGOAREN KOMUNIKATZEKO ERA

Neska zein mutilei hitzaz beraz deitzen diet. Hau da, neska bati neska deitzen diot eta alderantziz.	BAI	BATZUETAN	EZ
Mutilenganako eta neskenganako arreta berdintsua da, parekoa (galderak egiterako orduan, feedbackak, zuzenketak...etab).	BAI	BATZUETAN	EZ

Interbentziorako ordenak ezartzen ditut eta etenaldiak saihesten ditut, ikasle neska zein mutilek hitz egiten dutela eta aldi berean parte hartzen dutela ziurtatuz.	BAI	BATZUETAN	EZ
Ahots tonu goxo eta adeitsua erabiltzen dut ikasleekin komunikatzerako orduan, presio egoerak ahalik eta gehien saihestuz.	BAI Saiatzen naiz	BATZUETAN	EZ
Gauzatzen ari garen jarduera dena delakoa izanda neska zein mutilak erabiltzen ditut eredu gisara.	BAI	BATZUETAN	EZ
Esaldi estereotipatuak saihesten saiatzen naiz.	BAI	BATZUETAN	EZ
Genero estereotipo tradizionalarekin hausten saiatzen naiz, gizon zein emakumezkoak jarriz ereduak jartzerako orduan.	BAI	BATZUETAN	EZ

Hezkuntza eremu orotan, gaur gaurkoz, ezkutuko kurrikulumak botere handia du eta horren suntsipenean garrantzi handia hartzen dute hezkuntza politikan lan egiten duten instituzio eta antolakuntzek, zentro eskolarretako arduradunek, irakasleak, familiek, ikasleek eta irakasleek. Izan ere, edozein hezkidetzara planteamenduk arrakasta handiagoa izan dezake guzti hauen parte hartzea badago, Hori horrela, guztiz garrantzitsua da irakasleek lan egiten duten zentruari buruzko hausnaketa egitea. Izan ere, hainbat izan daitezke zentro batek hartu ditzazkeen erabakiak hezkidetzara bidean lan egiteko. Beraz, jarraian ageri diren esaldien baieztapena zein ezeztapena adieraztea eskatuko nizuke, betiere, lan egiten duzuen zentrua kontuan hartuta.

ZENTROARI ERREFERENTZIA EGINEZ

Kirol instalazioetan eremu zentrala jarduera alternatiboak gauzatzeko prestatuta dago, ez soilik futbola edota gainontzeko kirol nagusietarako.	BAI Azkenengo obrak zentzuzkoak dira	EZ
---	---	----

	egin dira Espazio berriak hezkidatza lantzeko	
Errekreoetan hainbat pautak ezartzen dira jarduerak dibertsifikatzeko.	BAI	EZ
Kultura femininoko jarduerak gailentzen diren torneo edota erakusketak antolatzen dira.	BAI	EZ
Komunikabideetan agertzen diren genero eredu eta harreman tradizionalen aurrean ikasleek gorputzari eta jardura fisikoari buruz duten ikuspegi kritikoa sustatzen da.	BAI	EZ Era programatuan ez. Puntuak bai
Sexu-jazarpenari aurrea hartzeko jarduerak gauzatzen dira, berdinen artean edo adin txikikoen zein helduen artean gerta daitezkeen jazarpen-moduei buruz sensibilizatuz eta prestatuz.	BAI	EZ
Familiak sensibilizatzea eta ohiko ereduaren gainetik kirola egiteko laguntza sustatzea. Hau horrela, funtsezkoa da agente sozializatzailerik primarioak sensibilizatzea; izan ere, agenteek aurka egiten badute, oztopoak jartzen badituzte edo ongi iruditzen ez bazaie, zailagoa da umeentzat kirola egin nahi duten ala ez aukeratzea, eta, hau behin erabakita, zein kirol mota egin nahi duten zehaztea.	BAI	EZ

Hau izan da guztia. Mila esker erantzutearren.

9.3.2.BIGARREN IRAKASLEARI EGINIKO ELKARRIZKETA

GORPUTZ HEZKUNTZAKO SAIOEI BURUZKO GALDERAK

Gaur egungo errealitateari erreparatzen badiogu, hainbat dira hurren heziketan hezkidetzak hartzen duen papera. Ikastetxe bakoitzean hezkidetzaren modu ezberdin batean jorratzen da, eta hezkidetzaren aldeko apustua bide ezberdinetatik bermatzen da. Bertan, irakasleek duten papera ukazina da, eta beraz, irakasle bakoitzak hezkidetzaren garapenean jartzen duen alea guztiz ezberdina da.

Hori horrela, oraingo honetan Olabide Ikastolako gorputz hezkuntzako bi irakaslek hezkuntza esparruan (ikasleekin interakzioan) hartzen dituzten erabaki eta ahaleginei buruzko galderak proposatu ditut. Betiere, galderak erantzuteko edota hala ez egiteko aukerarekin eta norbanako bakoitzak erabakiz zer eta nola erantzun nahi duen. Galdera hauek ez dira, inolaz ere, irakaslea juzgatu eta ikertzeko, baizik eta gaur egungo errealitatearen hausnarketa bat egiteko. Beraz, nahi duzuen erantzun dezakezue, nahi duzuen eran, libreki.

HURBILKETA GALDERA OROKORRAK

- Gorputz hezkuntzako saioetan hezkidetzaren lantzea garrantzitsua iruditzen al zaizu? Bai.
 - o Zergatik? Alor guztietan landu beharreko gaia dela uste dut. Gorputz hezkuntzan bereziki, estereotipoak markatuta agertzen direlako, izan ere gorputzaren bitartez lan egiten dugu.
- Saiatzen al zara zure saioak ahalik eta hezkidetzazaleenak izaten? Horretarako neurririk hartzen al duzu? Baietz esango nuke, hurrengo neurriak hartuz: ikasleengan jarritako espektatibak, hezkuntza inklusiboarekin, adibideak jartzerakoan eta lantzen diren edukiekin. Hala ere, konziente naiz oraindik asko dudala egiteko gai honetan eta akatsak egiten ditudala. Hurrengo adibidea aipatzea gustatuko litzaidake: egoera fisikoko unitatean lehenengo zikloan ikasleak ebaluatzeko erabiltzen dugun txantiloia emakume/gizonkeko baremo taula bat da, non indarra, erresistentzia, abiadura eta malgutasuna lantzen diren. Bigarren zikloan ebaluatzeko metodoa aldatzea erabaki dugu eta aurten saio bat prestatu dute gaitasun fisiko horiek lantzeko. Bigarren aukera hau askoz hezkidetzazalea dela uste dut, ikasleak ez ditugulako gaitasun fisikoaren arabera taldekatzen (zein da indartsuena? zein da azkarrena?) ezta neska/mutil arabera.

- Gorputz hezkuntzako irakasle hainbat urtez izan zarenez, nabaritzen al duzu zure garapenean hezkidetzarekiko aurrerapausorik? Arlo honetan zer esan gutxi dut, aurten nire 4.urtea delako. Berdintsu jarraitzen duela esango nuke.
 - o Hala bada, gai izango zinake horietarikoren bat kontatzeko? Lizentziatura eta irakaskuntzako masterra amaitu nuenean ideia hauek nahiko presente nituen eta ideia hauek nirekin jarraitzen duten arren, egia da egunerokotasunean sartzen naizenean, momentu batzuetan ideia horiek berreskuratzea eta aplikatzea ez zait hain erraza egiten.
- Gaur egun zein hutsune edota gabezia ikusten dituzu hezkidetzaz oztopatzen dutenak? Ez ditut oztoporik ikusten, baliteke era zuzenean ez lantzea orain arte beste lehentasunak markatu direlako, baliteke ere izatea ez dakigulako zein den modurik egokiena.
- Zure aburuz, zein neurri hartu beharko genituzke hezkidetzaz sustatzeko? Galduta nago puntu honetan, ideiarik ez dut. Agian has gaitzke edukiak aldatzen?
- Saio teoriko zein praktikoetan hezkidetzaren inguruko hausnarketak egitea baliagarria dela iruditzen al zaizu? Bai, nola ez dakidan arren.

SAIOAK ANTOLATZEKO FORMEI DAGOKIENEZ

TALDEEN OSAKETA

- Orokorki, gorputz hezkuntzako saioetan, nola egiten dituzu taldeak? Hau da, zein estrategia erabiltzen duzue taldekatzeak egiteko? Taldekatzeak era askotakoak egiten ditut; batzuetan hauzaz egiten ditut (1-2, 1-2, kamiseten kolorearen arabera), besteetan tutoreak jarri dituen taldeak (gelan taldeka esertzen direlako), mistoak (nik eginda), beraiek nahi duten bezala, listaren arabera, lagunaren arabera, etab.
- Jardueretan taldeak egiterako orduan taldekatze librea erabiltzen al duzu? (Taldekatzeko librea: norbanako bakoitzak jarduerara norekin landu nahi duen erabakitze eskubidea). Bai, noski, egoeraren arabera baina bai.
- Taldekatze mistoa egiterako orduan, progresiboki egiten al duzu? Hau da, lehendabizi taldekatze librea eta ondoren taldekatze mistoa. Ez dut hainbeste pentsatzen;

egoeraren arabera baina batez ere taldekako lanak egin behar dituztenean eta hauek aurkeztu talde horiek beti mistoak dira, nik eginak. Baina ez dut progresiboki egiten.

- Taldekatzea irakasleak egitean, ikasleak gustora eta eroso jarduten al dute? Normalean gusturago egoten dira era librean batzen direnean, hau da, beraien harremanen arabera batzen direnean. Hala ere, ez dira nire erabakien kontra jartzen, nahiko ohituta daude gelako edozeinekin egoten.
- Ikasleak euren kabuz taldekatzean, nola taldekatzen dira? Bere lagun minekin batzen dira eta normalean adin hauetan neskak neskekin jartzen dira eta mutilak mutilekin.
- Talde mistoak egiten al dituzte? Normalean ez.

ESPAZIOAREN ERABILERA

- Saioetan zein espazio erabiltzen dituzu? Unitatea eta saioaren arabera alda daiteke espazioaren erabilera. Normalean saioaren hasiera eta amaiera markatzeko ikasleak banku suediarretan esertzen dira eta esertzeko modua nahi duten bezala egiten dute. Banku suediar horiek paretaren kontra daude. Saioaren beroketa eta zati nagusia egiteko banaketa aldakorra da, adibidez badmintona (DBH2.mailan) unitatea lantzean, hasieran era indibidualean, bakoitzak nahi duen lekuan baina tartea utziz besteekiko, geroago bikoteka kiroldegiaren luzeran eta espazio osoa okupatuz. Bikote horiek aldatzen doaz; lerro bateko ikasleak 3 "leku" mugitzen dira eskumara.
- Orokorki, nola kudeatzen duzue espazioaren erabilera? Ez dut zehaztuta aparteko ezer, espazio guztia denona da eta uste dut ikasleek ere horrela sentitzen dutela.
- Mutilek eta neskek espazio berbera erabiltzen al dute? Unitate didaktikoetako saioak egiten ditugunean esango nuke baietz, orokorrean espazio bera erabiltzen dutela.
- Denbora librea izaten duzuen kasuan, mutilek eta neskek espazio berbera erabiltzen al dute? Orokorrean baietz esango nuke, gainera, hainbat kasuetan batera jolasten dute, hala nola, saskibaloiarekin zer ikusia duten jardueretan. Hala ere, batzuetan neska talde txiki bat egoten da (5-6 ikasle) eserita egotea nahiago dutenak eta mugitzera animatzen dituzunean kontakturik gabeko jarduera egitea erabakitzen dute eta albo batean.

- Nork erabakitzen du espazioaren banaketa nolakoa izango den? Hau da, ikasleek sarri erabakitzen al dute non jardun, ala irakasleak finkatzen du espazioaren banaketa? Saioaren gehiengo zatian nik esaten diet espazioaren zonaldia: luzeran, zona barruan, zelai erdian, etab. baina behin hori esanda, bakoitza jartzen da nahi duen tokian. Ariketa zehatz batzuetan listaren arabera lerrokatzea eskatu diet.

MATERIALAREN ERABILERA

- Zein material erabiltzen duzu saioak aurrera eramateko? Normalean tamaina eta material ezberdinetako baloiak. Baina badira saioak non ez dudan erabiltzen materialik edo beste batzuetan erabiltzen dudan materiala oihal txuri bat den, adierazkortasuneko unitatean bezala, edo musika tresna, aerobikako unitatean bezala.
- Material estereotipatua erabiltzen al duzu? (Baloia futboleko aritzeko, sokasalto...etab). Kasu batzuetan baietz esango nuke; adibidez DBH 3.mailan futbola ematen dugu.
- Hala bada, oztopo izan ohi da taldekide guztiak (neska zein mutil) jardueran aritzeko? Hau da, materiala estereotipatua denean parte hartzerako orduan erresistentziarik jartzen al dute? Futbola denean bai, neska batzuk gustuko izan arren. Beste motatako kirolak, nahiz eta taldekako kirolak izan (saskibaloia, bolei, eskubaloia, hokeia) neskek eta mutilek berdintsu parte hartzen dute.
- Materiala modu ekitatiboan (justuan, zentzuzkoan) banatzen al duzu? Bai, saiatzen naiz behintzat.
- Horrenbeste erabiltzen ez diren materialarekin jarduten al duzu? Hala modu batean tradizionalak diren materiala soilik erabiltzen duzue? Adibidez, stick-a, baloi handiak, frisbeea...etab. Gehienbat material tradizionala erabiltzen dut; boleiko baloiak, saskibaloikoak, badmintoneko bolantea, koltxonetak, beisboleko batea, etab.
- Ikasleekin materialaren eraketarako tartea hartzen al duzu? Hau da, ikasleei beraien materiala eraikitzeko espazio eta denbora eskaintzen al zaie? Ez.

- Ikasleekin gauzatu al duzue hausnarketarik “maskulinoak” edota “femeninoak” kontsideratzen diren materialari dagokionez? Ez, elkarrizketa edo egoera hortara eramaten bagaitu aipatu dezaket baina ez dut lanketa berezirik egin horren inguruan.

JARDURUEREN DISEINUA ETA EBALUAZIOA

- Normalean saio praktikoetan zein motatako jarduerak egiten dituzu? Kooperaziozkoak gehienbat.
- Konpetiziozko zein konpetiziozkoak ez diren jarduerak egiten al dituzu? Bai.
- Hauei denbora tarte zein garrantzia berdina eskaintzen al zaie? Ez, saiatzen naiz kolaborazioa nabarmentzen baina ikasleek joera dute jarduera asko lehiaketan bihurtzen.
- Gaitasun ezberdinak garatzeko jarduera mota ezberdinak egiten al dituzu? Bai, koordinazioa lantzeko adibidez musikarekin egiten dugu, objektuekin, objekturik gabe, banaka eta taldeka lantzen dugu.
- Gaitasun motor berriak garatzeko material edota arauen moldaketaz baliatzen al zarete? Adibidez, nolako arau egokitzapenak egiten dituzue?
- Erritmoa, abiadura, indarra, malgutasuna...etab (gaitasun fisikoak eta hauen garapena) lantzen al dituzue non ikasle bakoitzak arrakasta aurki dezakeen hauetariko batean? Bai, gaitasun horiek guztiak ikasturtean zehar lantzen ditut. Oreka, koordinazioa barne.
- Jarduera bakoitzaren zailtasun mailaz ohartuta norbanako bakoitza bere trebetasun mailaren arabera ebaluatzen al duzu? Bai. Baina gero eta garrantzi gutxiago ematen diegu trebetasunei, gure joera parte hartze, inplikazio eta prozesuari garrantzia ematea da.
- Karga sexistak dituzten jarduerak saihesten saiatzen al zara? Baietz esango nuke, baina akatsa egiten dudanean konturatzen ez naizelako da.
- Edota rolak finkatuta dituzten jarduerak egiterako orduan, hauek apurtzen eta ikasle denek rol ezberdinak probatzen saiatzen al zara? Ez.

- Rol ezberdinen inguruko hausnarketak egiten al dituzue? Ez.

IRAKASLEGOAREN KOMUNIKATZEKO ERA

Neska zein mutilei hitzaz beraz deitzen diet. Hau da, neska bati neska deitzen diot eta alderantziz.	BAI	BATZUETA N	EZ
Mutilenganako eta neskenganako arreta berdintsua da, parekoa (galderak egiterako orduan, feedbackak, zuzenketak...etab).	BAI	BATZUETA N	EZ
Interbentziorako ordenak ezartzen ditut eta etenaldiak saihesten ditut, ikasle neska zein mutilek hitz egiten dutela eta aldi berean parte hartzen dutela ziurtatuz.	BAI	BATZUETA N	EZ
Ahots tonu goxo eta adeitsua erabiltzen dut ikasleekin komunikatzerako orduan, presio egoerak ahalik eta gehien saihestuz.	BAI	BATZUETA N	EZ
Gauzatzen ari garen jarduera dena delakoa izanda neska zein mutilak erabiltzen ditut eredu gisara.	BAI	BATZUETA N	EZ
Esaldi estereotipatuak saihesten saiatzen naiz.	BAI	BATZUETA N	EZ
Genero estereotipo tradizionalarekin hausten saiatzen naiz, gizon zein emakumezkoak jarriz ereduak jartzerako orduan.	BAI	BATZUETA N	EZ

Hezkuntza eremu orotan, gaur gaurkoz, ezkutuko kurrikulumak botere handia du eta horren suntsipenean garrantzi handia hartzen dute hezkuntza politikan lan egiten duten instituzio eta antolakuntzek, zentro eskolarretako arduradunek, irakasleak, familiek, ikasleek eta irakasleek. Izan ere, edozein hezkidetzara planteamenduk arrakasta handiagoa izan dezake guzti hauen parte hartzea badago, Hori horrela, guztiz garrantzitsua da irakasleek lan egiten duten zentruari buruzko hausnarketa egitea. Izan ere, hainbat izan daitezke zentro batek hartu ditzazkeen erabakiak hezkidetzara bidean lan egiteko. Beraz, jarraian ageri diren esaldien

baieztapena zein ezeztapena adieraztea eskatuko nizueke, betiere, lan egiten duzuen zentrua kontuan hartuta.

ZENTROARI ERREFERENTZIA EGINEZ

Kirol instalazioetan eremu zentrala jarduera alternatiboak gauzatzeko prestatuta dago, ez soilik futbola edota gainontzeko kirol nagusietarako.	BAI	EZ
Errekreoetan hainbat pautak ezartzen dira jarduerak dibertsifikatzeko.	BAI	EZ
Kultura femeninoko jarduerak gailentzen diren torneo edota erakusketak antolatzen dira.	BAI	EZ
Komunikabideetan agertzen diren genero eredu eta harreman tradizionalen aurrean ikasleek gorputzari eta jarduera fisikoari buruz duten ikuspegi kritikoa sustatzen da.	BAI	EZ
Sexu-jazarpenari aurrea hartzeko jarduerak gauzatzen dira, berdinen artean edo adin txikikoen zein helduen artean gerta daitezkeen jazarpen-moduei buruz sensibilizatuz eta prestatuz.	BAI	EZ
Familiak sensibilizatzea eta ohiko ereduaren ginetik kirola egiteko laguntza sustatzea. Hau horrela, funtsezkoa da agente sozializatzailerik primarioak sensibilizatzea; izan ere, agenteek aurka egiten badute, oztopoak jartzen badituzte edo ongi iruditzen ez bazaie, zailagoa da umeentzat kirola egin nahi duten ala ez aukeratzea, eta, hau behin erabakita, zein kirol mota egin nahi duten zehaztea.	BAI	EZ

Hau izan da guztia. Mila esker erantzutearren.

9.4. GORPUTZ HEZKUNTZAKO SAIO HEZKIDETZAILEAK

DBH4KOENTZAKO HEZKIDETZA LANTZEKO SAIO PRAKTIKOAK

Gaur egungo errealitateari so egiten badiogu, irakaskuntza alorrean gaitasun ezberdinen garapenaren bidean aurrera egitea da helburu nagusia, hezkuntza jasotzen duen haur oro etorkizunerako prest egon dadin. Hala ere, bide horretan, gaitasunen lanketaren garapenean hainbat premia daudela nabaria da, eta horietariko bat hezkidetzarena da (Vazquez, 1996). Izan ere, hezkidetzaren pertsonak banakotasun, berezitasun eta generotik at lantzen den hezkuntza izanik, hainbat premia eta betebeharrak zein erantzukizun barnebiltzen ditu bere baitan, eta hauek, noiz-nahi hala egiten ez den arren, kontuan hartzea ezinbestekoa da.

Horrenbestez, saio guztiek hezkidetzaren balioa sustatu beharko lukete (Vazquez, 1996). Hori horrela, jarraian azalduko diren saio praktikoaren helburua nagusia gorputz hezkuntzan hezkidetzaren sustatzeko ildoak indartzea eta bermatzea da. Horretarako, gaur egungo errealitatea aztertuz hezkidetzarekin izango den proposamen bat garatuko da, egungo errealitatean gorputz hezkuntzan hezkidetzaren bidean dauden oztopoak eta premiez jabetuta. Saio hauek garatzeko Vilanova eta Solerrek (2012) adierazitako praktika onetan oinarritu da, taldekatzeko metodoa, espazioaren banaketa, materialaren erabilera, jardueren diseinua eta hausnarketa ezberdinak egiteko espazioa izanik landu diren irizpide ezberdinak.

Saio bakoitzean irizpide horiek gauzatzeko era ezberdinak bermatu dira eta horiek saioan zehar zein ikasleek jardunean izan dezakeen eragina azaldu da. Bestalde, hiru saioetan jardueren diseinua ezberdina izan da (hau da, saio batean lehiakortasunik gabeko jarduerak egin dira eta beste batean, aldiz, jarduera lehiakorrak) eta horien ostean jardueri zein saioari buruzko hausnarketak egiteko espazioa eman da; ikasleek saioari buruzko, zein materialari, espazioari eta taldekatzei buruzko hausnarketak egiteko espazioa eskainiz. Beraz, jardueren diseinua ezberdina izanez saio bakoitzean landu beharreko trebetasun motorrak ere ezberdinak dira, gailentzen diren gaitasun motorrei leku txikia ahalbidetuz (indarrari, azkartasunari, etab) eta ikasleek horiei buruzko hausnarketa egin dezaten.

Hiru saio hauek antolatzeko eta hezkidetzarekin izateko irizpide nagusia saio bakoitzean erabilizko espazioa, taldekatzeak, materiala eta jardueren mota era kontziente batean egitea izan da. Hau da, jardueren lehiakorrek egiteko orduan ikasleek jarreraren azterketa eta hausnarketa eginez, espazioaren banaketa adierazterakoan guztiei espazio bera erabiltzea ahalbidetuz, taldekatzeak ikasle guztien erositutasuna bilatzeko intentzioaren eginez, besteak

beste. Beraz, Vilanova eta Solerrek (2012) adierazitako praktika onak era kontziente batean aplikatu dira saioetan.

Beraz, hiru saio hauek aurrera eramateko hainbat irizpide ezarri dira, baina horrek ez du esan nahi gorputz hezkuntzako saio guztietan edota ikasle guztiekin berdin eragingo dutela. Horrenbestez, egokiena irakasle bakoitzak ikasleentzat eraginkorrena izango den modua erabakitzea da. Hori esanda eta saio praktikoko horiek aurrera eramateko aukera bat bakarrik egon ez dadin, Vilanova eta Solerrek (2012) adierazitako praktika onetan oinarrituta hainbat gomendio eta irizpide edota hezkidetzak sustatzeko modu adieraziko dira jarraian, irakasle orok eskura izan ditzan eta saio hauek aurrera eramateko orduan zein beste gorputz hezkuntzako saioak antolatzeko orduan.

IRIZPIDE OROKORRAK

Hasteko, gorputz hezkuntzako saioetan hezkidetzak lortu ahal izateko, eskola osoaren eta ingurunearen zeharkako eta diziplinarteko lana, ikasleen jarrera eta sinesmenen gaineko jarduerak, hizkuntza eta komunikatzeko moduak, saioak antolatzeko modua eta jardueren diseinu zein ebaluazioak garrantzi handia dute (Vilanova eta Soler, 2012).

TALDEEN OSAKETA

Taldeen osaketari dagokionez haur guztiak eroso eta seguru sentitzen diren metodoa aurkitu behar da eta hori talde mistoek ez dute beti bermatzen (Vilanova eta Soler, 2012). Horrenbestez, metodo posible bat taldekatze libreak egitea izango litzateke, pertsona bakoitzak erosen sentitzen denarekin taldekatze aukera izateko, ondoren irakasleak taldekatze horiek onartu edota zenbait kasutan talde handiagoak (mistoak izan daiteke) osatzeko neurriak ezartzeko aukera izateko (Vilanova eta Soler, 2012).

Azkenik, talderen batean beste sexuko ikasleren bat badago eta hori gustura sentitzen ez bada, ikaslearen erosotasun eta segurtasuna lortzeko estrategiak bilatzea ezinbestekoa da (Vilanova eta Soler, 2012).

ESPAZIOAREN BANAKETA

Espazioaren banaketari dagokionez, neska zein mutilen eremu nagusi, zabal, txikiago edota periferikoak erabiltzea (esaterako, errotazioen bidez) edota horren ohikoak ez diren espazioak erabiltzea gomendatzen da, ikasleek espazio berrietan jarduteko aukera izateko

eta esperientzia zein bizipen berriak bizitzeko aukera izateko, hala nola; lorategian, alboko espazioetan, etab. (Vilanova eta Soler, 2012).

MATERIALAREN ERABILERA

Materialari dagokionez, saioetan erabiltzen den materialaren dibertsifikazioa (material estereotipatuena oztopo ez izateko) eta materialaren banaketa era zuzen eta ekitatiboan egitea gomendatzen da, materiala mota ezberdinak erabiltzearekin eta ikasle bakoitzak material propioa osatzeko aukera izatearen batera, bakoitzak bere burua autogestionatu eta baloratzen ikasteko (Vilanova eta Soler, 2012).

JARDUEREN DISEINUA ETA EBALUAZIOA

Bestetik, jardueren diseinu zein ebaluazioari dagokionez, askotariko jarduerak sustatu behar dira, lehia eta lehiarik gabeko jardueri denbora berdina eskainiz, trebetasun zein gaitasun ezberdinak lantzeko aukera izateko eta horrela, ikasle bakoitzak trebea den edota arrakasta duen trebetasuna aurkitzeko aukera izateko (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, jardueren diseinuari dagokionez, saioetako zein ebaluazioetako helburuak pixkana jartzea gomendatzen dira, zailtasun mailak egokitzeko eta ikasle bakoitzari horiek lortzeko denbora ahalbidetzeko (Vilanova eta Soler, 2012).

Jarraitzeko, jarduerak diseinatzerako orduan rolak definituta dituen edota genero-erleipenak dituzten jarduerak gauzatu nahi badira, hala nola, areto dantzak, jarduera osagarrien bidez gauzatzea gomendatzen da, rol edota estereotipo horien suntsipena landuz, eta ikasle zein irakasleen gaitasun kritikoa suspertuz (Vilanova eta Soler, 2012).

IRAKASLEAREN KOMUNIKATZEKO ERA

Bestalde, saioetan irakaslearen komunikatzeko moduak garrantzi handia hartzen du eta horrenbestez, saio hezkidetzailleak izateko, mutil eta neskei modu berean izendatu behar zaie, hitza neskei eta mutili zuzendu behar zaie, itxuraz neska zein mutili esku hartzeko espazioak ahalbidetu behar zaizkie, eta etenaldiak saihestu behar dira, denek modu ordenatuan hitz egin dezaten, horretarako lekua eta denbora eskainiz (Vilanova eta Soler, 2012).

Bestetik, ikasleei tonu atseginez hitz egitea gomendatzen da, gutxiespenak eta esaldi txikigarri, superlatibo eta estereotipuak saihestuz, heziketa fisikoko saioetan neska zein mutilak hartu behar dira eredutzat, jarduera dena delakoa izanda, mutilen gaitasunak soilik goraiatu gabe (Vilanova eta Soler, 2012).

Amaitzeko, saioen amaieran saioaren inguruko eta taldekatzeko eren, ikasleen erlazioen, materialei esleitzen zaien “maskulino” edota “femenino” etiketen, espazioaren zein heziketa fisikoko egunerokotasunean ematen dien oztopoez hitz egitea baliagarria da ikasleek gaitasun kritikoa sustatzeko eta unean uneko arazo zein errealitateaz hausnartzeko eta irtenbidea aurkitzeko gai izateko (Vilanova eta Soler, 2012).

9.4.1. LEHENENGO SAIO PRAKTIKOA

Saio honen helburu nagusia hezkidetza lantzea da. Hala, hezkidetza lantzeko guztien parte hartzea zein lehiakortasunik gabe jarduten ikastea azpi helburutzat hartu dira. Izan ere, lehiaketa jarduerak eta eta lehiarik gabekoak bateratu behar dira eta denbora eta garrantzi bera eman biei (Vilanova eta Soler, 2012). Hala, gorputz hezkuntzako saioetan lehiakortasunari behar baino garrantzi handiagoa ematen zaio eta hori ekiditeko lehiakortasunik gabeko jardueretan ere gozatzeko aukera dagoela erakutsi nahi da. Ikasle guztien parte hartzea sustatzeko hainbat neurri hartu dira, hala nola, ikasle guztiek ukitu behar izatea baloia, etab. Bestalde, ikasle guztien erosotasuna eta gozamina kontuan hartu dira saioa prestatzerako orduan. Horretarako, azpimarragarria da taldeak osatzeko erabili den teknika. Teknika hori hezkidetza lortzeko praktika onen irizpideetan oinarritu da. Beraz, saio honen oinarrizko irizpideak hezkidetza eta inklusioa izan dira.

Erabili beharreko materiala: 3 eskubaloiko baloi, txifloa, freesbee-a.

Erabiliko dugun eremua: Kiroldetik kantxa. Beroketan, zati nagusian eta lasaitasunera itzuleran espazioa finkatuta egongo da, eta zati nagusian adierazita dagoen moduan, eskuineranzko errotazioaren bidez lekualdatzea egingo dute ikasle taldeek ariketat batetik bestera. Horrela, ikasle guztiek guztien aurka jarduteko eta espazio desberdinetan jarduteko aukera izango dute.

Ikasleen taldekatzeak beroketan eginiko jolasean gauzatuko dira. Taldekatze mota horiek egiteko Vilanova eta Solerrek 2012. urtean argitaratutako "La coeducacion en la educacion fisica en el siglo XXI: reflexiones y acciones" liburuan oinarritu da.

Saio osoak guztira 55´iraungo ditu.

BEROKETA: 10´. Beroketa kiroldegiko kantxaren erdi batean egingo da.

Mugimendu artikularrak 5´

Lepoaren mugimendua

Besoaren mugimendua

Gerriaren mugimendua

Belaunen mugimendua

Orkatilaren mugimendua

Jolasa 5'

Jolasa: irakasleak esandako eran egon beharko dira ikasleak ikasgelatik zehar, zehazki, kiroldegiko kantxa erdian. Hau da, zango batean gainean korrika eginez, bi zangoen gainean, igela moduan, etab. Ondoren, taldekatzeak gauzatuko dira, esandako eran. Hau da, binaka jartzeko esaten denean binaka jarri beharko dira, hirunaka esatean berdinean, eta hala 10naka esan arte (edo dena delakoa taldekide guztiak lau taldetan banatu arte) eta irakasleak taldekatze egokia egin dutela adierazi arte. Orduan, zati nagusiko ariketak egitera igaroko dira. Taldekatze mota hau hezkidetzat lantzeko egokia da. Izan ere, norbanako bakoitzak atxikipendua edota erlazio ona duen batekin jartzeko aukera du eta hala, ariketetan zehar eroso eta seguru sentitzea bermatu dezakegu.

ZATI NAGUSIA: 40'.

1. Ariketa: 10eko taldekatzea egin ostean (gutxi gora-behera), bi talde zelaiaren erdi batean arituko dira eta beste bi taldeak, beste erdian. 10 paseen jolasean arituko dira, baldintzarik gabe. Hau da, nahi dutenari nahi dutenean pasa ahalko diote. Hala ere, hainbat arau (berez jolasak dakartzanak) zehaztuko dira. Hala nola:
 - a. Baloia zehazturiko zelaitik ateraz gero beste taldearentzat izango da jabetza.
 - b. 10 pase egitean beste taldeak aterako du baloia.
 - c. Ezin da aurkaria jo.
 - d. Ezin da baloia eskuetatik kendu.
2. Ariketa: Aurreko ariketaren antzerakoa izango da, baina kasu honetan taldekide guztiek ukitu beharko dute baloia 10 pase horietan zehar. Gainera, baloia ezingo zaio aurretik pasa duenari berriz pasa. Hau da, baloia X-ek pasatu badu, baloia duenak ezingo dio X-i pasatu, baizik eta beste taldekideren bati. Arau hauekin talde osoaren parte hartzea bultzatzea izango da helburua.
3. Ariketa: Materialaren aldaketa egingo da. Baloiarekin aritu beharrean, freesbee-arekin arituko dira. Lehengo ariketan egin dugunaren berdina (arau berdinekin) egingo dute, araurik gabe 10 paseen jolasean arituz. Hala, material berriaren erabileraren bitartez esperientzia berriak esperimendatuko dituzke eta ez dira momentu oro material estereotipatuaz baliatuko, kasu honetan, baloia izango litzatekeena.

4. Ariketa: Azkenik, laugarren ariketa freesbee-arekin 10 paseen jolasa izango da, baina 2.ariketan txertatu ditugun bi arauak gehituta: Baloia ezingo zaio aurretik pasatu duenari pasatu eta taldekide guztiek ikutu beharko dute baloia.

Zati nagusiko ariketa batetik bestera espazioaren aldaketa egingo dute ikasleek. Hala, ariketa batetik bestera eskuineko errotazioaren bidez aldatu beharko dira taldeak, ikasle guztiek guztien aurka jokatzeko eta espazio ezberdinetan jarduteko aukera izan dezaten.

LASAITASUNERA ITZULERA: 5´.

Lasaitasunera itzultzeko luzaketak egingo dira. Taldekide guztiak kantzaren erdian borobil handi batean jarri. Borobilaren erdian bi ikasle jarriko dira eta horiek eraman beharko dituzte luzapenak. Egunez egun bi pertsona ezberdin jarriko dira, taldekide guztiek aukera berdintasuna izan dezaten. Erabaki horren bidez ikasleen parte hartzea eta autonomia zein boterea hartzea sustatu nahi da, ikasleek ere erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.

HAUSNARTZEKO BOST GALDERA

- Gustora jardun al dute ikasleek saioan zehar? Zerbait aldatuko al lukete?
- Lehiakortasunik gabeko jarduera hauetan disfrutatu al dute ikasleek? Lehiakortasuna beharrezkoa dela iruditzen al zaie disfrutatu al izateko?
- Guztien parte hartzeak eta taldean jarduteak zer nolako ekarpenak egin dizkie ikasleei?
- Material ezberdinen erabileraz jardunda esperientzia berriak bizi al dituzte ikasleek? Nolako esperientziak izan dira horiek?
- Materialaren etiketa "femenino" eta "maskulino"aren inguruan zein iritzi dute ikasleek? Eta irakasleak?

9.4.2. BIGARRREN SAIO PRAKTIKOA

Saioaren helburuetariko bat material alternatiboa edota horren ohikoa ez den materialaren bidez jardutea izango da. Hala, ikasleek esperientzia berriak esperimentatu eta bizi ditzaten aukera emateko (Vilanova eta Soler, 2012). Bestetik, tradizionalki femeninoak diren jardueren esleipen “femeninoa”rekin apurtzeko jarduerak eskaintzea izan da saioaren beste helburuetariko bat. Horretarako, esleipen “femeninoa” egiten zaion jarduera hartu da jarduera nagusitzat eta saioaren amaieran, “maskulino” edota “femenino” etiketari buruzko hainbat hausnartzeko galdera egin dira.

Erabili beharreko materiala: Txistua, 30 soka (taldean zenbat diren, hainbeste soka), kronometroa.

Erabiliko dugun eremua: Kiroldegiko kantxa. Espazioaren erabilera ariketa bakoitzean ezberdina izango da. Bestalde, gorputz hezkuntzako saioetan normalean erabiltzen ez duten eremuan ere jardungo dute, zehazki, espazio askeko eremu batean (paretik gabe). Hala, ikasleek espazio ezberdinetan jarduteko aukera izateko eta bizipen berriak bizitzeko. 50´ko saioa izango da guztira.

BEROKETA: 10´. Kiroldegiko kantxaren erdi batean borobilean jarrita. Ikasle bat erdian egin beharreko mugimenduak agintzen.

Mugimendu artikularrak 5´

Buru eta lepoaren mugimendua

Besoaren mugimendua

Gerriaren mugimendua

Belaunen mugimendua

Orkatilaren mugimendua

Jolasa 5´:

Norbanako bakoitzak soka bat hartuko du eta nik eginikoa errepikatu beharko du.

Salto eremutik mugitu gabe

Aurrerantz salto

Atzerantz salto

Ezkerrerantz salto

Eskuinerantz salto

Korrika arituko balira moduan saltoka fondoraino

Ezkerreko zangoarekin soilik salto
Eskuineko zangoarekin solik salto
Ezkerreko zangoarekin ezkererantz salto
Eskuineko zangoarekin eskuinerantz salto

ZATI NAGUSIA: 35´.

Ikasle guztien parte hartzea irakasleak kronometroaren bidez abisatuz bermatuko da. Hau da, irakasleak jarduera bakoitzean rol aldaketa egiteko garaian txistua joko du eta horrela ikasleek txistua entzutean rol aldaketa egingo dute. Jardun beharreko espazioari dagokionez, eremu aske batera joango dira, paretik gabeko eremu batera, normalean gorputz hezkuntzako saioak ematen ez dituzten leku batera (ikastetxe bakoitzak berea izango du). Bertan, nahi bezala kokatuko dira.

1. Zatia: 20´. Binaka jarri beharko dira, nahi dutenarekin. Hala, eroso eta gustora aritzea ahalbidetuko zaie. Binaka soka bat hartuko dute. Hala, bikoteko batek soka helduko du eta bestea bere parean jarri beharko da berari begira. Orduan, soka heltzen duenak sokari eman beharko dio eta biek salto egin beharko dute, sokarekin trabatu gabe. Ondoren, irakasleak esaten dudana mugitu beharko dira saltoak eginez. Hau da, “ezkerrera!” esaten badu, saltoka ezkererantz mugitu beharko dira, eta berdin, eskuin, aurrera edo atzera esanez gero.

Ondoren, ezkerreko edota eskuineko zangoarekin soilik ahalko dute egin salto, irakasleak esaten dienaren arabera.

Bikotekideetako bat saltatzen dagoela bestea sartu beharko da, eta alderantziz.

Bikotekide bakoitzak sokaren alde banatatik helduta biak batera salto egin soka berean.

2. Zatia: 10´. Ikasle guztien parte hartzea irakasleak kronometroaren bidez abisatuz bermatuko da. Hau da, irakasleak jarduera bakoitzean rol aldaketa egiteko garaian txistua joko du eta horrela ikasleek txistua entzutean rol aldaketa egingo dute.

Hirunaka jarriko dira ikasleak. Horretarako eta talde banaketan denbora asko ez egoteko ikasleei utziko zaie hirukoteak egiten. Horrela, ikasleen erosotasuna eta gustura jardutea ahalbidetuko da. Hala ere, ikasleren bat gustura ez badago jardun

behar duen hirukotearekin, ikasle hori gustura sentitzeko formula eta estrategiak bilatzea ezinbestekoa da (Vilanova eta Soler, 2012).

Hirukoteko bik soka heldu eta hirugarrenak barnean salto eginez kantxaren kanpoaldetik kantxari buelta eman beharko diote.

Hirukotea leku finko batean jarri beharko da. Hirukote bakoitzak 2 soka izango ditu. Bi pertsonak soka alde banatan heldu beharko dute eta barruan salto egin, ondoren, hirugarrenak horien erdian egin beharko du salto.

3. Ariketa: 5´.Hirukoteka soka berdinen pean egin beharko dute salto. Lehenik saltoka dagoena, ondoren bigarrena sartuko da eta azkenik, hirugarrena.

LASAITASUNERA ITZULERA: 5´.

Lasaitasunera itzultzeko luzaketak egingo dira. Kiroldegiko kantxara itzuliko dira eta borobilean eseriko dira (kantxaren erdialdean). Borobilaren erdian bi ikasle jarriko dira eta horiek eraman beharko dituzte luzapenak. Egunez egun bi pertsona ezberdin jarriko dira, taldekide guztiek aukera berdintasuna izan dezaten. Erabaki horren bidez ikasleen parte hartzea eta autonomia zein boterea hartzea sustatu nahi da, ikasleek ere erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.

HAUSNARTZEKO HIRU GALDERA:

- Sokasaltoan jardunez soilik neskek disfrutatu al dute? Zer moduz sentitu dira ikasleak saioan zehar (neska eta mutilak)?
- Jarduera ezberdinei tradizionalki esleitzen zaien “femenino” edota “maskulino” etiketei buruz zein da ikasleen iritzia? Eta irakaslearena?
- Indartsuenak eta azkarrenak gehiago disfrutatu al du?

9.4.3. HIRUGARREN SAIO PRAKTIKOA

Saioaren helburu nagusia hezkidetza lantzea izango da. Horretarako, ohikoa ez den materialaz jardutea eta horrela material berria ezagutu eta horrekin disfrutatzea izango da helburuetariko bat. Bestalde, Euskal Herriko joko tradizionalak ikasteko aukera emango da, eta horien bidez ikasleek gaitasun ezberdinak barneratu eta taldean jokatzeko ikastea. Saioko jarduerak lehiakorrak izango dira baina horien lehiakortasuna alde batera uzteko aukera egongo da. Hau da, irakasleren batek bere saioan jarduera hauek lehiakortasunik gabe egin nahi baditu soilik puntuazioa kendu beharko lieke jarduerari. Jarduera horiek lehiakorrak izatearen helburua aurkaritzan modu egokian jarduten ikastea izango da. Izan ere, galtzen eta irabazten ikasi behar dute ikasleek (Vilanova eta Soler, 2012), eta horretarako jarduera lehiakorretan errespetuz jokatu behar dute, eta hala exigituko zaie saio honetan.

Erabili beharreko materiala: Lokotxak, 4 zaku, sokatirako soka, 8 txinga, klariona, 4 kono, eta 4 otarra. Beraz, ohikoa ez den materiala erabiliko da, hots, material alternatiboa.

Erabiliko dugun eremua: Kiroldegiko kantxa. Jarduera bakoitzaren arabera espazioaren erabilera ezberdina izango da.

Taldekatzea: Talde mistoak osatuko dira jarduera gauzatzeko. Taldekatze misto hori era progresibo batean egingo da eta hala, ikasle guztien erosotasun eta gozamina ziurtatzeko aukera egongo da, ikasle guztiei eroso sentitzen diren bikotearekin jartzeko eskatuko baitzaie eta ondoren irakasleak bikote horiek elkartuko ditu talde handiagoak osatzeko aukera izango du (Vilanova eta Soler, 2012). Bestalde, taldean beste sexuko pertsona bakarria badago, gustura sentitzeko formula eta estrategiak bilatzea ezinbestekoa da (Vilanova eta Soler, 2012) eta taldekatze mota hauetan ere hala egingo da.

BEROKETA: 10'.

Euskal Herriko herri kirolen inguruko informazioa eman: nondik datozen, non praktikatzen ziren eta diren, noiz egiten diren, etab.

Mugimendu artikularrak 5'. Kiroldegiko kantxaren erdian borobil batean, bi ikasle erdian eta gainontzekoak horiek egiten dutena kopiatzen.

Buru eta lepoaren mugimendua

Besoaren mugimendua

Gerriaren mugimendua

Belaunen mugimendua

Orkatilaren mugimendua

Jolas bat egingo dugu 5' (denbora izanez gero, beroketak 15 minutu iraun behar ditu). Armiarma jolasa. Kantxa erdi batean arituko dira. Gelakide bat armiarma izango da eta armiarma ez diren guztiak kantxa erdiaren alde batean kokatu beharko dira, eta armiarma, aldiz, beraien parean begira. Hala, armiarmak soilik bere alboetarako marra zuzenean egin ahalko du korrika, eta horri, armiarma sare deituko diogu. Armiarmak "ORAN!" esatean beste taldekideak dauden aldetik bestera igaro beharko dira eta armiarmak harrapatu egin beharko die. Harrapatuz gero, harrapatutako lekuan geratuko da geldi iheslaria (armiarma sarean), eta iheslariak beste aldera igaro beharko diren hurrengo aldian, harrapatutako iheslaria armiarma bihurtu eta iheslariak harrapatu beharko ditu, baina geldirik egonez dagoen lekuan.

ZATI NAGUSIA: 40'. Sokatiran ez ezik beste jarduera guztietan eremu berdinean jardungo dute. Sokatirarako eremua aldatuko da, baita jarduera gauzatzeko taldeak ere.

1. Ariketa: Lokotx bilketa (txokor batzea). 10'. Lokotx bilketa egiteko ikasleak taldeetan banatuko dira. Gelakide guztiak lau taldetan banatuko dira eta horretarako, aldez aurretik, ikasleei binaka jartzeko eskatuko zaie. Ondoren, norbanako bakoitza berak aukeratutako bikotekidearekin gustora dagoenean, bikoteak elkartu eta lau talde ezberdin bereiziko ditugu. Hala ere, taldekatzeak egitean irakasleak talde ezberdinak ikuskatu beharko ditu, ea guztien erosotasun eta segurtasuna bermatzen den behatuz. Izan ere, talde mistoren batean beste sexukoa den pertsona bakarria badago, gustura sentitzeko formula eta estrategiak bilatzea ezinbestekoa da; adibidez, bi taldeko pertsonen arteko trukaketa, edota zuzenean berari galdetzea ea gustora sentitzen den taldean.

Talde bakoitzak otar bat izango du barruan lokotxak egongo direna. Lokotx bilketa jolaserako hainbat marka egingo ditugu lurrean, klarionarekin, ondoren lokotxa non jarri behar den argi izateko. Beraz, hori egin ostean, ikasleei lokotxak eginiko marketan jarri behar direla adieraziko diegu eta lokotx denak jartzea izango dela helburua, ondoren horiek kendu eta berriz otarrean sartzeko. Beraz, lokotxak jarri eta kendu prozesua bizkorren egiten duen taldeak puntu bat lortuko du. Bi aldiz egingo dugu jarduera, eta beraz, bi puntu egongo dira jokoan jarduera/ariketa honetan.

2. Ariketa: Zakuen jokoa. 10'. Talde berdinak mantenduko dira eta talde bakoitzak zaku bat izango du. Hala, talde bakoitzaren parean (talde bakoitzak maila berdina) kono bat egongo da, eta zakuak bizkarrean helduta konoraino joan, konoari buelta eman eta berriz hasierako tokira itzuli beharko dira parte hartzaileak. Ondoren, bere ondorengoari zakua pasa eta honek berdina egin beharko du. Taldekide guztiek bi aldiz egin beharko dute buelta eta hau egiten gutxien luzatzen den taldeak puntu bat irabaziko du. Bi aldiz egingo dute jarduera, eta beraz, bi puntu izango dira jokoan jolas honetan.
3. Ariketa: Txingen eramatea. 10'. Txingen eramatea jolasa egiteko, aurretik jardun duten talde berdinak mantenduko ditugu, inork arrazoitutako aldatzea eskatzen ez badu. Hala, talde bakoitzak bi txinga izango ditu (ikus irudian) eta aurretik ezarritako konoraino joan beharko dira txinga bakoitza esku batean izanda, konoari buelta eman eta itzuliz. Hala ere, ezingo dira korrika eginez joan, oinez ahalik eta azkarren baizik. Hala, korrika egiten duena berriz hasi beharko da hasierako puntutik. Taldekide bakoitzak bi aldiz egin beharko du ibilbidea eta hori bizkorren egiten duen taldeak lortuko du puntua. Bi aldiz egingo dute jarduera eta beraz, bi puntu izango dira jokoan.
4. Ariketa: Sokatira. 10'. Sokatirarako bi talde osatuko ditugu, aurretik genituen lau taldeak binaka batuz. Hala, talde bakoitza sokaren alde ezberdinetan kokatuko da soka helduz eta irakasleak "ORAIN!" esatean, tira egin beharko dute. Horretarako, sokaren erdialdetik gertu bi marra egingo ditu irakasleak klarionarekin, eta beste aldetik indar handiagoz tira egitearen erruz aurrerantz doan taldeko lehenengoa marratik pasatzean adieraziko da zein talde izan den irabazlea. Jarduera bi aldiz egingo dute eta beraz, bi puntu banatuko dira.

LASAITASUNERA ITZULERA:

Lasaitasunera itzultzeko luzaketak egingo dira. Taldekide guztiak kantxaren erdian borobil handi batean jarriz. Borobilaren erdian bi ikasle jarriko dira eta horiek eraman beharko dituzte luzapenak. Egunez egun bi pertsona ezberdin jarriko dira, taldekide guztiek aukera berdintasuna izan dezaten. Erabaki horren bidez ikasleen parte hartzea eta autonomia zein boterea hartzea sustatu nahi da, ikasleek ere erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten.

HAUSNARTZEKO BOST GALDERA

- Herri kirol ezberdinetan jardutean indartsuena izan al da beti irabazi duena?
- Indarra izan arren kooperazioan lanean jarduteko arazoak dituenak abantailarik izan al dute?
- Bizkorrena izateak abantaila ekartzen al du jarduerako arauak betetzen ez badira? Adibidez, txingean jolasean nahiz eta irabazi nahi izan eta korrika egin, jarduerako arauak hautsiz gero berriz hasieratik hasi behar.
- Taldearen animazioak zer nolako eragina du kooperaziko jardueretan?
- Zein sentisazioekin geratu dira ikasleak jarduerak amaitu ostean? Irabazi eta sufritu duten sentisazioekin edota irabazi ez arren lagunekin disfrutatu dutenarekin? Izan ere, askotan, nahi bakarria irabaztea izaten da eta ez gara ohartzen irabazteko grin horrek disfrutatu eta gozatzea eragozten duela, beraz, horren inguruko hausnarketa egitea guztiz aproposa litzateke.